

**INGURUNE-JASANGARRITASUN TXOSTENA
HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO
PLANA**

2020

**INGURUMEN JASANGARRITASUNARI BURUZKO
TXOSTENA
(EAE-KO HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA
KUDEATZEKO PLANA)**

astelehena, 2014.eko uztailak 14

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. 2020KO EAEKO HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO PLANAREN LABURPENA, HELBURUAK ETA BESTE PLANEKIKO ZEIN LOTUTAKO PROGRAMEKIKO HARREMANAK	4
2.1 Aplikazio-eremua	4
2.2 Diagnostikoa	5
2.3 HELBURU NAGUSIAK	7
2.3.1 Helburuak zehazteko gakoak	7
2.3.2 Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020rako Planaren helburuak	8
2.4 ZERIKUSIA BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIN	8
2.5 Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren edukiak	11
2.5.3 Instalazio berriak ezartzeko irizpideak	32
3. EAEKO HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO 2020RAKO PLANAREKIN ERLAZIONATUTAKO INGURUMEN BABESEKO HELBURUAK	38
3.1 ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAN JASOTAKO INGURUMEN HELBURU ESTRATEGIKOAK, PRINTZIPIOAK ETA IRIZPIDEAK	38
3.2 ERREFERENTZIAZKO INGURUMEN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK	43
4. INGURUMENAREN EGUNGO EGOERA.	44
4.1 Potentzialki eragindako lurralde-eremuaren ingurumen-karakterizazioa	44
4.2 EXISTITZEN DIREN INGURUMEN ARAZOAK	44
5. LURRALDEKO INGURUMEN UNITATE HOMOGENEOEN DEFINIZIOA	47
5.1 1. UNITATEA. INGURUMENAREN ETA PAISAIAREN ALDETIK SENTIBERAK DIREN EREMUAK	47
5.2 2. UNITATEA. HONDAKINEN KUDEAKETAKO INSTALAZIOAK HARTZEKO EREMU EGOKIENAK	48

6.	HONDAKIN PLANAREN ERAGINAK IKUSKATZEKO PROGRAMA	49
6.1	PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	49
6.2	Planaren ingurumen-eraginen JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	52
7.	INGURUMENEAN GERTA DAITEZKEEN ERAGIN ESANGURATSUAK: HONDAKIN PLANETIK ONDORIOZTATUTAKO INPAKTUEN ANALISIA	54
8.	NATURA 2000 SAREKO TOKIETAKO ONDORIOEN EBALUAZIOA	56
9.	AUKEREN HAUTAKETA PROZESUAREN LABURPEN ARRAZOITUA	57
9.1	0 AUKERA (ZERO) EDO ESKU EZ HARTZEA	57
9.2	AUKERAK, PLANAREN IRISMENARI DAGOKIONEZ	59
9.3	AUKERAK HELBURUEN HAUTAKETAN	59
9.4	AUKERAKN JARDUEREN HAUTAKETAN	61
9.5	AUKERAK ZEHAZTEKO ETA HAUTAATZEKO ERABILITAKO IRIZPIDE TEKNIKOAK	64
9.5.1	Hierarkia-printzipioarekiko arreta	64
9.5.2	Lehenespen irizpideak	64
9.5.2	Hondakinak tratatzeko edo kudeatzeko instalazio berriak: kokapenerako, garapen teknikorako eta aldi baterako garapenerako irizpideak	66
9.6	KONGRUENTZIAREN ETA PROPORZIONALTASUNAREN JUSTIFIKAZIOA	66
10.	AURREIKUSITAKO INGURUMEN INTEGRAZIO NEURRIAK	70

I. ERANSKINA: LABURPEN EZ TEKNIKOAK

II. ERANSKINA: 2020KO HONDAKIN PLANAREN BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOARI BURUZKO TXOSTENA

1. SARRERA

Ingurumenaren babes orokorrari buruzko 3/1998 legearen arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio, ezarritako eskumen-eremuan, ingurumenaren arloko araudia prestatzea eta onartzea, bai eta legeria garatzea zein ingurumenaren eta ekologiaren inguruko Estatuaren oinarritzko legeria betearaztea ere. Era berean, bere eskumenen artean daude Europar Batasuneko araudien aplikazio zuzenerako beharrezko neurriak hartzea eta zuzentarauek eta Erkidegoko gainontzeko araudian ezarritako obligazioak betearaztea.

EAEn, orain arte, hondakin-politikak jarraian adierazitako planen arabera zuzendu dira:

- EAeko hondakin ez arriskutsuak prebenitzeko eta kudeatzeko 2009-2012 aldirako plana
- EAeko hondakin ez arriskutsuak prebenitzeko eta kudeatzeko 2008-2011 aldirako plana
- Hiri-hondakinak planifikatzeko eta kudeatzeko ildoak EAEn 2008
- 2016ra arteko indarraldia duten Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundien hiri-hondakinak prebenitzeko edota kudeatzeko lurralde-planak.

Halaber, zenbait zuzentarau baliogabetzen dituen hondakinei buruzko 2008ko azaroaren 19ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/CE Zuzentarauak (Hondakinen Esparru Zuzentarau (HEZ) bezala ere ezaguna) hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko planak ezartzeko betekizuna ezartzen du; horiek euren sorrerari eta kudeaketari lotutako ingurumen inpaktuak kontuan hartzea sartu behar dute euren garapen- edo azterketa-prozesuan.

Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak ezartzen du Autonomia Erkidegoei dagokiela hondakinak prebenitzeko programak eta hondakinak kudeatzeko autonomia-planak prestatzea.

Orain arte, EAEn indarrean izan diren hondakinen planek hondakin arriskutsuen, ez arriskutsuen eta hirikoen prebentzioan, kudeaketan eta tratamenduan aurrerapausoak ematea ahalbidetu dute, EAEn. Plangintza horien indarraldia amaitu izanaren eta Hondakinen Zuzentarau Markoa onartu eta gero hondakinen arloan marko berri bat ezarri izanaren ondorioz, baina, uneotan beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinen plangintzarako instrumentu berri bat garatzea. Instrumentu hori, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020 da.

Bere aldetik, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren menpe jartzea (IEE) hemen ezartzen da:

- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- Hasiera batean, orain dela gutxi ingurumen-ebaluazioko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak indargabetuko plan eta programa jakin batzuk

ingurumenaren gainean dituzten eraginaren ebaluazioari buruzko 9/2006 Legean.

21172012 Dekretuaren 8. artikulua esparruan, ingurumen-organora bidaltzen da, 2014ko otsailaren 7ko sarrera-datarekin, 2020rako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren EAren Hasierako Dokumentua, ingurumen-prozedurari hasiera emanda. 2014ko apirilaren 30ean, ingurumen-organoak «2020ko EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren» ingurumen-jasangarritasunaren txostenaren irismena eta edukia zehazten dituen Erreferentziazko Dokumentua igortzen du.

Erreferentziazko Dokumentua igortzeko (aurrerantzean, ED), hurrengo Administrazioak eta erakundeak kontsultatu dira (211/2012 Dekretuaren 9. artikulua esparruan), (*) ikurrarekin identifikatutakoetatik erantzuna jasota:

- Euskal Herriko Itsasertz Mugapea
- EUDEL
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza (*)
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologia Zuzendaritza
- Industria Garatzeko Zuzendaritza. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. (*)
- Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europako Politiketako Zuzendaritza. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila.
- Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Saila. (*)
- Etxebizitza Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.
- Garraio Azpiegituren Zuzendaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. (*)
- Uraren Euskal Agentzia. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. (*)
- Ingurumen eta Hirigintza Saila. Arabako Foru Aldundia. (*)
- Nekazaritza Saila. Arabako Foru Aldundia. (*)
- Euskara, Kultura eta Kirol Saila. Arabako Foru Aldundia. (*)
- Herrilan eta Garraio Sailean. Arabako Foru Aldundia.
- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia. (*)
- Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia-Landa Garapeneko Zerbitzua. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia-Baliabide Naturalen, Fauna Zinegetika eta Arrantza Zerbitzua. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Bide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia. (*)

- Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia-Mendien Zerbitzua. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Bide Azpiegituren Zuzendaritza. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia. (*)
- Ekologistak Martxan Bizkaia(*), Araba eta Gipuzkoa.
- Berreskurapenaren eta Birziklapenaren Espainiako Federazioa. (*)
- Paper eta Kartoi Berreskuratzaileen Espainiako Elkarte. (*)

Ingurumen Jasangarritasun Txosten honen helburua ingurumen-organoak igorritako EDak ezarritako irismenari eta edukiari erantzuna ematea da.

Nolanahi ere, garrantzitsua da nabarmentzea 2020ko Hondakinen Planak ingurumen-eduki argia duela; izan ere, horren helburu nagusia hondakinen sorrera minimizatzea eta euren kudeaketa optimizatzea da, globaleko politika aurreratuagoetarantz zuzenduta. Alde horretatik, horren ingurumen-ondorioei dagokienez, Planaren diagnostikoa eta ebaluazioa Planaren idazketan bertan daude inplizituak; izan ere, hondakinek gure Autonomia Erkidegoko maila guztietan sortzen duten inpaktu globala minimizatu nahi da.

2. 2020KO EAEKO HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO PLANAREN LABURPENA, HELBURUAK ETA BESTE PLANEKIKO ZEIN LOTUTAKO PROGRAMEKIKO HARREMANAK

Planaren egiturak eta edukiak hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legearen 14. artikulua ezarritakoari erantzuten diote:

«KUDEAKETAKO AUTONOMIA-PLANEK AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE-EREMUKO HONDAKINEN KUDEAKETAREN EGOERAREN ANALISI EGUNERATUA IZANGO DUTE, BAI ETA HONDAKINEN BERRERABILPENA, BIRZIKLAPENA, BALORIZAZIOA ETA ELIMINAZIOA ERRAZTEKO NEURRIEN ERAKUSKETA ERE, PREBENTZIOKO, BERRERABILTZeko PRESTAKUNTZAKO, BIRZIKLAPENeko, BALORIZAZIOKO ETA ELIMINAZIOKO HELBURUAK ETA LEGE HONETAN EZARRITAKO HELBURUEN LORPENEAN EGINDAKO EKARPENAREN KALKULUA EZARRITA, HONDAKINEN ARLOKO GAINONTZEKO ARAUETAN ETA BESTELAKO INGURUMEN-ARAUETAN. PLANEK V. ERANSKINEAN ERAKUTSITAKO ELEMENTUAK HARTUKO DITUZTE BARNE».

Beste aldetik, 22/2011 Legearen 15. artikulua adierazten du prebentzio planak modu independentean onartu daitezkeela edo hondakinen kudeaketari buruzko planetan eta programetan integratu daitezkeela. Kasu horretan, kudeaketa-plan batean eta prebentzio-plan batean integratzen dira.

2.1 APLIKAZIO-EREMUA

Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidego osora zabaltzen da.

2014-2020 aldia hartzen du barne, aldizkako ebaluazioekin, 3 urtean behin, 22/2011 Legearen 14. artikuluan ezarritakoa beteta (horien berrikuspenak 6 urtean behin ezartzen dira, gutxienez).

Ondorioz, ebaluazioa 2016ko amaieran egingo da, eta horren helburua aldi horretan ezarritako helburuen betearazpena ebaluatzea eta 2017-2020 aldia barne hartzen duen Planaren bigarren aldirako zuzenketa-jarduerak edo neurriak ezartzea da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020 hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legearen aplikazio-esparruaren barneko euskal lurraldean edo Autonomia Erkidegotik kanpo sortutako baina EAEn kokatutako enpresen bidez kudeatutako hondakin guztietan aplikatu daiteke. Beraz, Planaren helburuzko hondakinak honako hauek dira:

- Hondakin arriskutsuak (HA): besteak beste, PCB/PCT hondakinak, gailu elektrikoak eta elektronikoak (GEEH), erabilitako pilen eta baterien hondakinak, erabilitako olioak, hondakin arriskutsuen

edukiontzia, etxeko hondakin arriskutsuak (EHA), erabiltzen ez diren ibilgailuak (EEI).

- Hondakin ez arriskutsuak (HEA): besteak beste, industria-hondakinak, hiriko EDAR lohiak, erabiltzen ez diren pneumatikoak, erabiltzen ez diren ibilgailuak (Hondakin Ez Arriskutsuaren korrante nagusizat jotako zatiketaren frakzio arinari dagokionez)¹
- Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak (EEH)².
- Hiri-hondakinak³ (HH): etxeko⁴, merkataritzako eta antzeko hondakinak sartzen dira bertan

Aipatzekoa da biohondakinak zehazki aztertzen direla; izan ere, lorategietako eta parkeetako hondakin biodegradagarriak; etxeetatik, jatetxeetatik, sukaldaritza kolektiboko zerbitzuetatik eta txikizkako establezimenduetatik ateratako elikagai-eta sukalde-hondakinak eta elikagaien prozesatu-instalazioetatik ateratako antzeko hondakinak barne hartzen dituen 22/2011 Legearen barnean sartutako kontzeptu berria da.

Planaren irismenetik kanpo gelditzen dira 22/2011 Legearen aplikazio-esparrutik gelditzen diren hondakinak, 2.1 eta 2.2 artikulua araberak. Zehazki, kanpo gelditzen dira meatze-jardueren hondakinak; lurzoru kutsatuak (baina barne gelditzen dira hondakin bihurtutako lurzoru kutsatuak); hondeatutako lurzoru ez kutsatuak eta beste material batzuk; hondakin erradioaktiboak; desklasifikatutako lehergailuak; materia fekalak, lastoa eta arriskutsuak ez diren eta nekazaritzako zein abeltzaintzako ustiapenetan, basogintzan edo biomasa horretan oinarritutako energiaren ekoizpenean, giza osasuna arriskuan jartzen ez duten edo ingurumena kaltetzen ez duten prozeduren edo metodoen bidez erabilitako naturako, nekazaritzako edo basoko beste material batzuk; Giza Kontsumorako ez diren Animalia Azpiproduktuak (GKAA), betiere 1069/2009 Araudiak estalitako hondakin gisa kudeatzen ez direnean, eta Araudi horren arabera eliminatutako animalien gorpuak.

22/2011 legea kontuan hartuz, azpiproduktu izatera pasatzen diren materialak kanpo gelditzen dira.

2.2 DIAGNOSTIKOA

Lehenik eta behin, Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak hondakinen sorreraren eta kudeaketaren arloko egungo egoeraren diagnostikoa gauzatzen du, Europa eta EAE mailan. Hona hemen analisiaren ondorio nagusiak:

- Aurrerapenak lortu badira ere, hondakinak arazo handia dira oraindik, nagusiki, sortutako kopurua handia delako oraindik, denboran murriztu eta

¹ Frakzio hori eta txatarra ibilgailuaren gehiengo frakzioak dira.

² Betiere, horiek berrerabiltzen ez direnean.

³ Definizio hori 2011ko azaroaren 18ko Batzordearen Erabakiaren 1. artikulutik hartu da; horrek Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2008/98/CE Zuzentarauaren 2. ataleko 11. artikuluan aurreikusitako helburuak betetzen direla egiaztatzeko arauak eta kalkulu-metodoak ezartzen ditu [C(2011) 8165 zenbakiarekin jakinarazia] (2011/753/UE). 22/2011 Legeak etxeko eta merkataritzako hondakin gisa zehaztutakoaren baliokidea da.

⁴ Etxeetan sortutako hondakin gisa definitzen dira.

bananketa txiki bat ikusten bada ere, eta prebentzioak zein birziklapenak eskaintzen duten potentzial osoa aprobetxatzen ari ez delako.

- EAEn, bertako industria-jarduerak eta bere ekoizpen-prozesuei lotutako hondakinen sorrera esanguratsuak baldintzatzen duten hondakinen sorrera.
- Orokorrean, existitzen diren hondakinen tratamendurako azpiegiturak nahikotzat jotzen dira (hala ere, ekimen publikotik ez gauzatzea erabakitzen den zenbait behar existitzen dira, korrante jakin batzuei dagokienez). Horrela, erronka azpiegitura horien ustiapena maximizatzean oinarritzen da, zabortegean uztearen kalterako.
- Azken urteetan, hein handiagoan edo txikiagoan, hondakin-tipologia ezberdinek beherakadaz izan badituzte ere, euren urteko sorreran, joera horren eta egungo atzeraldi ekonomikoaren arteko loturak hondakin-fluxuen etorkizuneko prognosi doitua zailtzen du⁵ eta, ondorioz, plangintza zailtzen du.

2020ko Hondakin Plana idazteko, honako hau izan da kontuan:

- 2020an, hondakinen sorrera-mailek krisian sartu aurreko 2007ko ekoizpen-tasak inola ere ez gainditzea, orokorrean, atzeraldiaren ondoko BPGren leheneratze-aldiek hondakinen sorreraren hazkuntza esanguratsua beraiekin ekartzen badute ere⁶.
- Epe motzeko-ertaineko aldizkako berrikuspenen beharra: hori dela eta, Plan hau martxa jarri eta 3 urtetara berrikuspenera egiteko beharra ezartzen da.

Hori guztia, epe motzerako, ertainerako eta luzerako beharren kalkulu fidagarria egiteko, modu koherentean HEZaren eta horren hondakinen eta lurzoru kutsatuen 22/2011 transposizio-legearen helburuekin eta irizpideekin.

- Koordinazio eraginkorra beharrezkoa da EAeko plangintza- zein hondakinen kudeaketa-eskumenak dituzten erakundeen artean, jarduera ere eraginkorra izan dadin. Horrela, existitzen diren koordinazio-mekanismoak mantentzeko eta optimizatzeke (adib.: HHKO, Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoa) eta lankidetzeta-foro berriak sortzeko (Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien, Udalen, eta ekoizpen-sektoreen, banatzaileen edo hondakinen kudeatzaileen artean) beharra ezartzen da, bai eta Industriaren, Nekazaritzaren, Osasunaren eta Hezkuntzaren arloan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako beste Sail edo erakunde batzuekin lan egitekoa ere, aipatutako Planean lehentasuna duten arazoak konpontzeko.
- Herritarren sentsibilizazioaren arloan aurrera egiteko beharra detektatzen da, prebentzio-helburuak lortzeko funtsezko tresna gisa.

⁵ Espezializatutako erakunde estatistikoak ere epe motzeko-ertaineko iragarpenak soilik egiten dituzte, 2020 bezalako urruneko iragarpenak saihestuta.

⁶ Izan ere, antzeko ekoizpen-mailak berreskuratuta ere, aldi ekonomiko zail honi aurre egiteko, enpresek euren baliabideen erabilera optimizatzea eta euren hondakin-korronteak minimizatzea ahalbidetu duten prebentzio-neurri oso zorrotzak hartu dituzte.

- Isuriaren gaineko zerga, sorreraren araberako ordainketa eta zaintza zein kontrol tresnak bezalako mota ekonomikoko tresnak beharrezkotzat jotzen dira, HEZak ezarritako helburuak betetzen direla bermatzeko.

2.3 HELBURU NAGUSIAK

2.3.1 HELBURUAK ZEHAZTEKO GAKOAK

HEZ birlandatzen duen Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen 22/2011 Legeak (HLKL, aurrerantzean) 2020ko Hondakin Planaren helburuak zehazteko funtsezko oinarria diren honako printzipio filosofiko hauek ezartzen ditu:

- a) Giza osasunaren eta ingurumenaren Babes Printzipioa: hondakinen inguruko jarduerak giza osasunari, uraren kalitateari, aireari, lurzoruari, faunari, florari edo paisaiari kalte egitea saihestu behar dute eta, zehazki, koherenteak izan behar dira klima-aldaketaren aurkako borroka-estrategiekin.
- b) Hondakinen kudeaketako Hierarkia Printzipioa: ordenan, lehentasuna eman behar zaie prebentzioari, berrerabiltzeko prestakuntzari, birziklapenari, gainontzeko balorizazioei eta eliminazioari.
- c) Autosufizientzia-, gertutasun- eta unibertsalitate-printzipioak: hondakinak gertuen dauden instalazio egokietan tratatu beharko dira, garraioari lotutako arriskuak eta ingurumen-inpaktuak minimizatzen.
- d) Produktuaren ekoizlearen erantzukizun luzatuaren eta eragile guztien erantzukidetasunaren printzipioak: hondakinen ekoizpenean eta kudeaketa inplikaturako eragile guztien lan bateratuak eta koordinatuak soilik ahalbidetuko du hierarkia-printzipioaren aplikazio eraginkorrean eta HEZaren helburuen betearazpenean modu esanguratsuan aurrera egitea.
- e) Gardentasun- eta partaidetza-printzipioa: hondakinen hierarkia aplikatzea faboratzen du.

Komenigarria deritzo printzipio horiei Europako zenbait Zuzentarautan zein, ingurumenaren arloan, aurreratuagoak dauden Europako zenbait eskualderen araudian jasotako honako hau gehitzea:

- f) Bizi-zikloaren printzipioa eta baliabideen ekonomia zirkularra: euren bizi-zikloaren amaieran dauden hondakinetan dauden materialak fabrikazio-zirkuituan berriz sartzearen maximizazioa, horrek ekartzen dituen ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-abantailekin.

Eta, EAEren egungo egoera sozioekonomikoari erantzunez, 2020ko Hondakin Planak berariazko printzipio hauek ekartzen ditu:

- g) eko, merkatu berdearen sustapeneko eta enpleguaren sorrerako printzipioak: ingurumen, gizarte- eta ekonomia-faktoreen oreka sustatzen du, gizarte iraunkorrerako oinarri gisa.
- h) Kudeaketa eraginkorreko printzipioa: administrazioaren erantzukizuna nabarmentzen du edozer motako baliabideen optimizazioan, emaitzak maximizatu ahal izateko.

2.3.2 HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO 2020RAKO PLANAREN HELBURUAK

Egungo egoera, arau-esparru aplikagarria aipatutako printzipio filosofikoak eta detektatutako erronkak kontuan izanda, 2020ko Hondakin Planean proposatutako helburu estrategikoak honako hauek dira:

- (1) Sortutako hondakinen kopuru totala % 10 jaitea 2020rako, erreferentzia urtetzat 2010 hartuta; baita hondakinen arriskugarritasuna jaitea ere.
- (2) Hondakinon bilketa selektiboa gutxienez % 75 izatea 2020an, eta bilketa sistema espezifikoak ezartzea arazo bereziak eragiten dituzten hondakinentzat
- (3) Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea 2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanez.
- (4) Hondakinen ezabapena optimizatzea, hondakin primarioen isurpenarekin amaituz eta isurpenok minimizatzeke bitartekoak garatuz gertutasun eta autosufizientzia printzipioak ezartzea exijituz hondakinen balorizazio eta ezabapenean, betiere baldintza baliokideetan eta martxan dauden zabortegeien eragina minimizatuz egin badaiteke.
- (5) Hondakinen arloko informazioa eta gardentasuna hobetzea; hondakinen arloko kudeaketa administratiboa erraztu eta bizkortzea HKLKK zein hondakinen arloko araudiak irekitako aukerak baliatuta; eta merkatu berdea eta enplegu sorrera sustatzea Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana garatuz eta ezarriz.

Horietatik, lehenengo 4ak ingurumen-helburuak dira.

Ikus bezala, Hondakin Plana materializatzen saiatzen den hierarkia-printzipioak garrantzi nabarmena hartzen du, lehenik eta behin, prebentzioari lehentasuna emanda. «Hondakin onena sortzen ez dena» denaren uste osoarekin, Hondakin Planaren berriazko egiturak Prebentzio Programan ardatzen ditu bere ahaleginak, Europako, estatuko eta autonomiako araudiak eta probintzia-planek ezarritako gaikako bilketari, berrerabiltzeko prestakuntzari, birziklapenari, balorizazioari eta eliminazioaren minimizazioari buruzko helburuez arduratzen bada ere.

Hori koherentea da 2002-2020 aldirako Garapen Iraunkorrerako Euskal Estrategiak ezarritako helburu orokorrarekin: «Azken hondakinen sorrera murriztea eta, jatorrizko prebentzioaren bidez, hazkuntza ekonomikoaren eta hondakinen ekoizpenaren arteko bereizketa lortzea». Izan ere, 2020ko Hondakin Planaren ingurumen helburua (ingurumenaren gaineko hondakinen inpaktuaren murrizketa, hainbat estrategien bidez, prebentziotik hasita) eta idatzitako esparrua direla eta, hein batean, Garapen Iraunkorreko Euskal Estrategiaren (GIEI, aurrerantzean) garapen-tresnatzat jo liteke, hondakinen arloan; izan ere, helburu berak ditu eta garapen iraunkorreko irizpide beretan oinarritzen da.

2.4 ZERIKUSIA BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIN

2020ko EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana erabat lerrokatuta dago EAEko ingurumen estrategiekin eta esparru-politikekin:

- 2002-2020 GIEIE: Zehaztutako 5 ingurumen-helburuetatik, «2. Baliabide naturalen eta hondakinen kudeaketa arduratsua» nabarmentzen da, eta horren esparruan, besteak beste, honako helburu hauek ezartzen dira:
 - o Azken hondakinen sorrera murriztea eta, jatorrizko prebentzioaren bidez, hazkunde ekonomikoaren eta hondakinen ekoizpenaren arteko disoziazioa lortzea.
 - o Azken hondakinak gertutik eta segurtasunez kudeatzea.
- 2011-2014 aldirako Ingurumen Esparru Programa (III. IEP): Ezarritako 6 helburu estrategikoetatik (HE) eta 17 helburu operatiboetatik (HO), honako hauek nabarmentzen dira:
 - o HE3, Baliabideen erabilera eraginkorra eta kontsumo arduratsua sustatzea, HO7 (industria-hondakinen balorizazio materialeko tasaren hazkundera), HO8 (LA31, lurzoru kutsatuen balorizazioa).
 - o HE2, (...) lurzoruaren artifizialtzea mugatzea (azpiegitura berriak proposatzen ez diren heinean).
 - o HE4, Ingurune garbia eta osasungarria bermatzea, HO9 (partikulen tasarekin erlazionatua)

Beste aldetik, 2020ko EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana sektore-plangintza osatzen du eta, ondorioz, hondakinen sorreraren eta kudeaketaren arloko beste sektore-plan batzuekin erlazionatu behar da.

Lehenik eta behin, orain arte, autonomia-mailako hondakin-politikak arautu dituzten planak edo estrategiak nabarmentzen dira:

- 2009-2012 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana: aurrerapen esanguratsuak eragin ditu aurreikusitako ekintza batzuetan; hala nola, EEHen balorizazioaren arloan gauzaturako lana⁷.
- 2008-2011 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana: prebentzioari, kudeaketa optimoari korrante atomizatuari eta arau-garapenari lotutako zenbait ekintza partzialki garatu dira bakarrik, aurretik aipaturako arrazoi berak direla eta. **Nolanahi ere, aipatzekoak dira sortutako hondakin arriskutsuen osokoaren % 65eko balorizazio materialeko helburuaren betearazpenean izandako aurrerapenak.** Halaber, aurrera egin da ekoizle guztiei kudeaketa-zerbitzu eraginkorra errazteko erronkan, kudeaketako sistema integratuen, taldekatze-zentroen eta kudeatzaileen baimenari esker. Prebentzioaren arloan, emaitzek egoera ekonomikoaren eragin handia izan dezakete, baina jarduerak gauzatu dira; hala nola, korrante edo sustantzia jakin batzuei buruzko ikerketa espezifikoak (merkurioa...), erakustaldi-proiektuak, ekodiseinu-esperientziak, diru-laguntzak, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren bidezko desgrabazioak, etab., guztiak hondakinen kudeaketa-hierarkia betetzea sustatzeko joerarekin.

⁷ Berezik, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen balorizaziotik datozen agregakin birziklatuen erabilpenerako baldintzak ezartzen dituen eta onartzeke dagoen Agindu Proiektua.

- Euskal Autonomia Erkidegoan Hiri-hondakinak Planifikatzeko eta Kudeatzeko 2008ko Gidalerroak: Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiekin koordinatuz eginda. **Gidalerroetan proposatutako ekintza ugari gauzatu dira dagoeneko, Eusko Jaurlaritzak, Hiri Hondakinaren Koordinazio Organoak, Foru Aldundiek edo beste administrazio batzuk sustatuta. Aipatzekoak dira hainbat eremutan egindako aurrerapenak; hala nola, inbentarioen homogeneousazioan, hondakinaren ordenantza-ereduaren garapenean, kudeaketa-sistemen eraginkortasuna hobetzeko tasen aplikazioari eta tresna ekonomikoari buruzko ikerketen gauzapenean, edo ez birziklatzearen kostuen ebaluazioan, besteak beste. Nolanahi ere, beste ekintza batzuk egiteke daude oraindik; hala nola, edukiontzien hondakinaren inguruko hitzarmenak merkataritza-gune handiekin eta banaketa-kateekin, tresna ekonomikoak aplikatzeko aukeren analisia edo, EAEn, sentsibilizazioko estrategia koordinatua prestatzea.**

Plan horien indarraldiaren amaierak eta HEZera eta HLKLra egokitzearen beharrak bultzatzen dute 2020ko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plan berriaren idazketa.

Beste aldetik, hori Foru Aldundiek euren eskumenen esparruan prestatutako Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Lurralde Planekin ere erlazionatzen da; horien aurrekontuak 2020rako autonomia-planean jasotzen dira:

- Arabako LHko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plana 2006-2016: ALHHHKPrein oinarrien ezarpenean, Hiri Hondakinaren Plan Nazionalean eta GIEIn proposatutako egoeren integrazioa izan da kontuan, bai eta, bere garaian, EAeko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Esparru Plangintzarako Gidalerroei (EAeko aurreko Hondakin Planaren oinarria) buruzko Zirriborroan ezarritako kontsiderazioak ere. Helburuen betearazpenaren eta baldintza berriekiko egokitzapenaren urteko azterketak jasaten ditu.
- Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integrala 2005-2016: HEZak eta hondakinaren kudeaketa-hierarkiak ezarritako printzipioak jarraitzen ditu; ondorioz, prebentzio-jarduerei lehentasuna emanda, gainontzekoen aurrean. Beharrezko azpiegiturak (batzuk jadanik gauzaturak) Planean identifikatzen dira: zenbait birziklapen-instalazio, konposta egiteko instalazio bat, energia-berreskurapena duten bi errausketa-lerro, aurretratamendu mekaniko-biologikoko instalazioa eta 25.800 eta 28.891 Tm/urteko bigarren mailako hondakinaren isuri-gaitasuna.
- Bi helburu nagusirekin formulatutako 2002-2016 aldirako Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala, 2008-2016 Aurrerapen Dokumentua eta 2008-2016 Aurrerapen Dokumentuaren Garapen Estrategia: **(1) sortutako hondakinak ahal bezain beste murriztea eta (2) zaborra kudeaketa optimizatu behar duen baliabidetzat jotzea. Hondakinaren kudeaketa-hierarkian ere oinarrituta.**
- **bereizketako eta balorizazioko helburu-ehunekoak lortzeko modua.**

2020ko EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planarekin erlazionatutako aipatutako sektore-plan guztiak egungoaren oso desberdina den egoera sozioekonomikoan idatzi ziren eta, egoera horren arabera, bere helburuak

ezarri ziren. Horregatik, helburu horien eta lortzeko diseinatutako ekintzen betearazpen-maila partziala izan da.

Plangintza berriarekin, plangintza globaleko esparruan ekintza koordinatuak eta koherenteak ekarriko dituen estrategia eguneratua zehaztu nahi da, hondakinen sorreraren eta kudeaketaren arloan. Alde horretatik, 2020ko EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak lehen hondakin-korronteen arabera desberdintzen ziren autonomia-planak biltzen eta ordezkatzeko dituzte, eta probintziako hondakin-planen aurreikuspenak hartzen dituzte barne. Ondorioz:

- Hondakinen sorreraren eta kudeaketaren ikuspegi globala errazten da EAE osoan, irtenbide globalak hartzea faboratuta.
- Edukiak errepikatzea saihestuta, beharrezkoak ez diren gastuak saihesten dira: proposatutako ekintzak indarrean dauden tresna guztien eta eragile eskudunen artean koordinatzen dira.
- Baterako esparrua ezartzen da, publiko orokorrarentzako gardentasun-maila handiagoarekin.

2.5 HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO PLANAREN EDUKIAK

2.5.1 PROGRAMA BAKOITZARI LOTUTAKO JARDUERA PROGRAMAK ETA EKINTZAK

2020ko Hondakin Plana arautzen duten printzipioetan oinarrituta (ikus 2.3.1 atala), eta egungo egoeraren zein hondakinen sorreraren eta kudeaketaren inguruan aurreikusitakoaren diagnosiaren arabera, Plan horren jarduera-esparruan ezarritako helburu estrategikoak zehaztu dira (ikus 2.3.2 atala).

Aipatutako helburuak lortzeko, jarraian, hierarkikoki bildutako bost Jarduera Programa proposatzen dira:

- 1) Prebentzio Programa
- 2) Bilketa eta Banaketa Selektiborako Programa
- 3) Hondakinen Berrerabilpenerako, Birziklapenerako eta Balorizaziorako Programa
- 4) Eliminazioa Optimizatzeko Programa
- 5) Administrazioaren Eredugarritasunaren eta Gobernu Egokiaren Programa

Lehenengo lau programak zuzenean erlazionatuta daude Europar Batasunak sustatutako Hondakinen Kudeaketa Hierarkiarekin, eta zeharkakoagoa den bosgarren programa administrazioari eta gobernu egokiko gaien ingurukoa da, baina funtsezkoa da, ere bai, ingurumen-helburuak betetzeko.

Jarduera-programa bakoitza hondakin-korronte zehatzen egoera edo zeharkako egoerak edo problematikak hobetzera zuzendutako hainbat jardueratan garatzen da.

Jarduera-programa bakoitzean, lehentasuna eman zaie problematika edo korronte nagusiei, honako irizpideen arabera:

- **Lege-baldintzaren existentzia:** programa bakoitzean, lotutako lege-betekizuna duten korronteei emango zaie lehentasuna.
- **Tamaina:** kopuru handiena sortzen duten korronteei emango zaie lehentasuna; izan ere, horiek lagunduko diote bereziki Planari, edota, kopuru handiena ez badute ere, euren sorrerak goranzko joera duten korronteei.
- **Arriskugarritasuna:** korronte arriskutsuenei ere lehentasuna emango zaie, euren ingurumen-inpaktu handiagoa dela eta.
- **Programa zehatzerako hobekuntza-gaitasuna (prebentzioa, gaikako bilketa eta bereizketa, berrerabiltzeko prestakuntza, birziklapena eta balorizazioa):** aurreko 3 irizpideen arabera hautatutako korronteen edo problematikena.

Lehentasuna emandako hondakin-korrontek	Jarduera-programa			
	Prebentzioa	Gaikako bilketa eta bereizketa	Berrerabiltzeko prestakuntza, birziklapena eta balorizazioa	Eliminazioa optimizatzea
Biohondakinak	X	X	X	X
Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak (EEH)	X	X	X	X
Edukiontziak	X	X	X	X
Etxetresnak eta bestelako GEEH	X	X	X	X
Hondeatutako lurzorua (hondatuak eta ez hondatuak)	X		X	
Altzairugintzako zepak			X	X
Pasta-paper lohiak (destintatze-lohiak, lixiba berdeak eta efluenten tokiko tratamendu-lohiak)			X	X
Burdina-galdaketako moldaketa-hondar berdeak, bestelako hondarrak eta galdaketa-finoak			X	X
HUA lohiak			X	X
Pilak, bateriak, fluoreszenteak eta EHA	X	X		
Disolbatzaileak, margoak eta bernizak, erabilera orokortuko produktu kimikoak, olioak eta taladrinak	X			
Erabiltzen ez diren ibilgailuak (EEI) eta erabiltzen ez diren pneumatikoak (EEP)	X			
Dentisten amalgamak eta merkurio-urak, ospitaletako eta laborategietako termometro-hondakinak,		X		
Egiturazko fibrozementua		X		
Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenetako hondakin fitosanitarioak eta zoosanitarioak		X		
Papera eta kartoia, beira, metalak,		X		X

zura,				
Itsasontzien desegitetik ateratako hondakinak			X	
Autogestionatu daitezkeen hondakinak			X	
Zabortegiko materialen aprobetxamendua				X
Eliminatzen diren hondakin arriskutsuak eta EAetik kanpo tratatutako hondakinak				X

- Merkatuko aukerak sortzeko gaitasuna: lehentasuna emateko problematikak edo korronteak hautatzeko, euren ebazpenean, merkatuko aukerak sortzen lagunduko dutenak hartzen dira kontuan.

Ondorioz, jarduerak problematika zehatzaren ebazpenari erantzuten diote eta «tresnen nahasketaren» kontzeptuaren arabera antolatzen dira; horren arabera, ekintza isolatuak ez dira hain eraginkorrak, eraginkorragoak dira aipatutako problematikaren funtsezko eragileei eta aspektuei eragiten dieten koordinatutako jardueren multzoak.

Korronte bakoitza barne hartzen duen jarduera-estrategia edo programa hurrengo taulan ikus daiteke. Hurrengo ataletan, 5 programetako bakoitzarekin lortu nahi dena azaltzen da.

1. taula: Planean lehentasuna emandako hondakin-korronteak, helburu estrategikoei egindako ekarpenaren ordenaren eta jasotzen dituzten jarduera-programen arabera

2.5.1.1. *Aurrea hartzeko programa*

Programaren Helburu Estrategikoa «sortutako hondakinen kopuru totala % 10 jaitea 2020rako, erreferentzia urtetzat 2010 hartuta»; baita hondakinen arriskugarritasuna jaitea ere, hainbat ikuspuntutik:

- Produktuen bizi-zikloa kontuan hartzen duten produktuen diseinu- eta ekoizpeneko eta salmentako sistema-kontzeptu berriei lotutako prebentzioa (ekodiseinua, eraikuntza iraunkorra, eraikinen birgaikuntza)
- Hondakin kopuru txikiagoa eta arriskugarritasun txikiagokoa sortzen duten ekoizpen-teknologia berrien ikerkuntzari lotutako prebentzioa.
- Kontsumo-ohiturei lotutako prebentzioa, inplikaturako eragile guztien aldetik, erosketa arduratsua zein berrerabilpenaren sustapena aipatuta.

Beraz, prebentzio-programa honekin lortu nahi diren Helburu Zehatzak honako hauek dira:

- Hondakin-kopuruaren eta horien toxikotasunaren sorrera murriztea, hondakinen sorreraren eta garapen ekonomikoaren arteko bananketarantz bideratuta.
- Berrerabil daitezkeen produktuen berrerabilpena sustatzea, horiek hondakin bihurtzea saihesteko: GEE edota euren osagaiak, EEI edota euren

osagaiak, edukiontziak, altzariak, arropa, lurzoruak zein hondeatutako beste material batzuk.

- Elikagaien xahubidea murriztea, prozesatu, banaketa eta kontsumo eraginkorragoaren edo beste helburu batzuetarako aprobetxamenduaren bidea (elikagai-bankuak...)
- Autokonpostajearen sustapena landa-eremuetan, edo komunitate-konpostajea dentsitate txikiko bizileku-eremuetan.
- Zenbait produktutan, sustantzia toxikoen ordezkapena sustatzea: etxeko produktu kimikoak, pilak eta bateriak, eta GEE, euskal industria-sektoreko erabilera orokortuko produktu kimikoak, bai eta erabilera bakarreko plastikozko poltsa ez biodegradagarrien ordezkapena ere.
- Europako Batzordeak onartutako hondakinak prebenitzeko Teknologia Erabilgarri Onenen (TEO) ezarpena sustatzea.
- Herritarrei sortutako inpaktuak minimizatzearen garrantziaren, eskuragarri dauden aukeren eta aipatutako ondasunen eta zerbitzuen kontsumo eta erabilera iraunkorra egin ahal izateko irizpideen berri ematea eta horien inguruan sentsibilizatzea.
- Aipatutako produktuen balio-kateko eragile ezberdinei sortutako inpaktuak minimizatzearen eta horretarako aukera hobetan laguntzearen berri ematea eta horien inguruan sentsibilizatzea.

Beste aldetik, HEZen 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, nabarmentzekoa da, 2014ko amaieran, Europako Batzordeak hondakinak prebenitzeko eta bereizteko helburuak proposatu beharko dituela (hazkuntza ekonomikoaren eta hondakinen sorreraren artean) 2020. urterako, Teknika Erabilgarri Onenetan (TEO) oinarrituta. Aipatutako helburuak estatu kideen helburu bihurtu ahal izango dira eta, ondorioz, automatikoki sartu ahal izango dira prebentzio-programan, EAEn existitzen diren lurralde- eta kudeaketa-eredura egokitzeko behar diren berezitasunekin.

Aurretik aipatutako irizpideen arabera, Prebentzio Planaren helburuak lortzeko lehenetasuna emandako korrontek edo problematikak honako hauke dira:

- Biohondakinak
- Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak (EEH)
- Erabilera bakarreko plastikozko edukiontziak eta poltsak
- Etxetresnak eta bestelako GEEH
- Toxikotasun handiko etxeko hondakin arriskutsuak (pilak, bateriak, fluoreszenteak, produktu kimikoak)
- Toxikotasun handiko kontsumo handiko industria-produktuak (disolbatzaileak, margoak, taladrinak...)
- Erabiltzen ez diren ibilgailuak (EEI) eta erabiltzen ez diren pneumatikoak (EEP)

- Hondeatutako lurzoruak eta bestelako materialak

Jarraian, Programa honetarako proposatutako ekintza nagusiak laburtzen dira:

1. Programa	Prebentzioa
P-A1	Biohondakinak prebenitzeko jarduerak
<p>P-A1-1 Herritarrei zuzendutako komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpaina sustatzea, Planaren indarraldian zehar, elikagaiak alferrik galtzea minimizatzeke (etxeko kontsumoaren ondoko hondakina), Europako Batzordeko LIFE proiektuaren esparruan</p> <p>P-A1-2 Etxeko eta komunitateko konpostajearen jarduera orokortuak foru-planetan sartzea bultzatzea</p> <p>P-A1-3 Ostalaritza-sektorearekin borondatezko hitzarmenak bultzatzea, biohondakinen prebentzioa sustatzeko</p> <p>P-A1-4 Azalera handien zein saltoki txikien banaketa-sektorearekiko lankidetzatza sustatzea, jadanik martxan jarritako ekimenak sustatzeko, biohondakinak saihesteko (elikagai-bankuetara entregatzea...) eta erabilera bakarreko plastikozko merkataritza-poltsa ez biodegradagarrien betekizuna betetzeko</p> <p>P-A1-5 Biomasa energia ekoizteko biomasaren hondakina ez dela erabakitzen duen arau teknikoa prestatzea.</p> <p>P-A1-6 HHKOekin, sorreraren ondoriozko ordainketa ingurumenaren lege orokor berrian sartzea lantzea, hondakinen sorrera prebenitzeko tresna gisa, eta udalekin eta Mankomunitateekin lan egitea, horren ezarpenean</p> <p>P-A1-7 Nekazaritzako eta elikadurako sektorearekin biohondakinen prebentzioa lantzea.</p>	
P-A2	Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak (EEH) prebenitzeko jarduerak
<p>P-A2-1 Industrializatutako eraikuntza-prozesuak sustatzea (aurrefabrikatuak erabiltzea, hondakinen sorrera prebenitzeko).</p> <p>P-A2-2 Eragile ekonomikoekin (lanen sustatzaileak) borondatezko hitzarmenak adostea sustatzea, eraikuntza iraunkorreko praktikak aplikatzeko, birgaikuntza eta eraispenera selektiboa bultzatzea eta, eraikuntza- eta eraispenerako sektoreko eragileen artean, eraikuntza iraunkorreko, birgaikuntzako eta eraispenera selektiboko teknikak zabaltzea.</p> <p>P-A2-3 Hondakinen kudeaketa-planetan eta EEHen kudeaketa-ikerketetan, eraikuntza- eta eraispenera-enpresek gauzatuko dituzten prebentzio neurriak eta berrerabilpeneko-eragiketak sartzea bultzatzea.</p> <p>P-A2-4 Erraz berrerabil edo birzikla daitezkeen eta, euren balio-bizitzaren amaieran, hondakin gutxiago edo substantzia arriskutsuen eduki txikiagoa sortzen dituzten eraikuntza-sektorerako produktuen I+G+b-ren bultzada.</p> <p>P-A2-5 Eraispeneratik ateratako materialak sortutako helburu berdinetarako erabiltzea sustatzea, ekoizleen eta sustatzaileen aldetik.</p>	
P-A3	Edukiontzia prebenitzeko jarduerak
<p>P-A3-1 Fabrikatzaileen eta inportatzaileen artean, edukiontzien ekodiseinua</p>	

sustatzea, prebentziora, berrerabilpena eta birziklapena begira.

P-A3-2 Borondatezko hitzarmena sustatzea banaketa-sektorearekin, fabrikatzaileekin, marka handiekin eta saltoki txikiekin, gordailu-, itzulera- eta itzultze-sistemak sustatzeko (GIIS).

P-A3-3 Edukiontzien hondakinen sorrera txikiagoa eta jatorrizko bereizketa egokia sustatuko duten herritarren sentsibilizazio-kanpainak egitea.

P-A3-4 Planaren helburuen arabera, edukiontzi industrialen hondakinak prebenitzeko enpresa-planak bideratzea, ILPSren diru-laguntzei lotutako helburuekin eta neurri zehatzen proposamenarekin

P-A3-5 Industria-beiraren ea hornidura-beiraren korranteak prebenitzeko ekimenak bilatzea, gaikako bilketa eta bereizketa bideratzeko eta bi ekimenak bateratzeko, edukiontzia ez den beiraren zikloa itxita

P-A3-6 Edukiontzien EELSKekin hitzarmena sinatzea, fabrikatzaileen arteko ekodiseinua sustatzeko (pizgarriak, birziklagarritasun-maila jakin batzuk lortuz gero), zerbitzuaren unibertsagarritasuna bermatzeko, helburuak betetzeko, etab.

P-A4 GEEHak prebenitzeko jarduerak

P-A4-1 Ekodiseinuaren bidez sustatzea:

- produktuak zerbitzuengatik trukatzeko (product service system)
- egun produktuetan erabilitako sustantzia arriskutsuentzako aukerak bilatzea eta produktuak desegitea eta konpontzea erraztuko duten jarduerak sustatzea.

P-A4-2 Eskualdeetako Lantaldearen eta Europako Batzordearen aurrean, produktuen a. handitzearen aldeko ekimenak eta horien berme-epea handituko duen legea sustatzea

P-A4-3 Jasangarritasun handiagoa eta bizitzaren amaierako hobekuntzak dituzten produktuei zerga-abantailak ematearen aukera aztertzea

P-A4-4 Herritarrak informatzeko/sentsibilizatzeko kanpainak sustatzea, gailu elektriko/elektronikoen erosketari/erabilerari dagokionez.

P-A4-5 Enpresak informatzeko/sentsibilizatzeko kanpainak sustatzea, gailu elektriko/elektronikoen erosketari/erabilerari eta, orokorrean, makineriari buruz

P-A4-6 Foru Aldundiekin eta fabrikatzaile/banaketa-sektorearekin lan egitea, merkaturatutako gailuen konponketa sustatzeko.

P-A4-7 GEEHen eta pilen EELSKekin hitzarmena sinatzea, fabrikatzaileen arteko ekodiseinua sustatzeko (pizgarriak, birziklagarritasun-maila jakin batzuk lortuz gero), Tokiko Erakundeek euren eskumeneko hondakinen bilketan duten parte-hartzea zehazteko, berrerabiltzeko prestakuntzara zuzendutako taldeen % ezartzeko, zerbitzuaren unibertsaltasuna eta lege-helburuen betearazpena bermatzeko, trazabilitatearen hobekuntza lantzeko, berrerabiltzeko prestakuntzarako baimena duten enpresei gailu berrerabilgarriak entregatzea sustatzeko, etab.

P-A5 Pilak, bateriak, fluoreszenteak eta etxeko hondakin arriskutsuak prebenitzeko jarduerak

P-A5-1 Pilak edo bateriak kontsumitzen ez dituzten produktuak dituzten eta,

izanez gero, berriz kargatzekoak diren eta, ahal bada, hain sustantzia arriskutsuak ez dituzten pilekin egindako produktuak dituzten EAEko fabrikatzaileen/banatzaileen ordezeko aukerak bilatzea

P-A5-2 Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak sustatzea

P-A5-3 Administrazio publikoak (Zerbitzu Orokorrak, Osakidetza, Ertzaintza, etab.) eta pribatuak (produktuen banatzaileak eta banaketa-sektorea orokorrean) diren etxeko produktu arriskutsuen erosle handiei erosketaren berdearen inguruko laguntza eta informazioa eskaintzea⁸

P-A5-4 Ordezko aukeren ikerkuntza Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean sartzea (ZTBP)

P-A5-5 EAEko fabrikatzaileen/banatzaileen ordezeko aukerak bilatzea, etxeko produktu kimikoetarako

P-A6

Erabiltzen ez diren ibilgailuak (EEI) eta erabiltzen ez diren pneumatikoak (EEP) prebenitzeko jarduerak

P-A6-1 Jarduera-sektorearekin lan egitea, piezen berrerabilpena sustatzeko eta hierarkia-printzipioa aplikatzeko, kamioiena barne (web-sustapenean eta tresnerian laguntzea..., hondakinen kontabilitatea eta horien kudeaketa errazteko memoria-eredua ezartzea, gas hozgarriak erauzteko trebakuntza eta hondakinak esportatzeko, etab.)

P-A6-2 Erabiltzen ez diren pneumatikoen berrerabilpena sustatzea eta horien zerbitzazioa eta berrerabiltzeko prestakuntza sustatzea. Gainera, pneumatikoen balorizazio materialerako jarduerak ere sustatuko dira

P-A6-3 EEIen EELSKekin hitzarmena sinatzea, fabrikatzaileen arteko ekodiseinua sustatzeko (pizgarriak, birziklagarritasun-maila jakin batzuk lortuz gero), zerbitzuaren unibertsalgarritasuna bermatzeko, helburuak betetzeko, etab.

P-A6-4 Ibilgailu handietarako birkautxuztatutako edo birmoldatutako pneumatikoen Erosketa Pribatua eta Publikoa sustatzea, erosketaren aurrean.

P-A6-5 Ekoizle handien pneumatiko-hondakinen minimizazio-planak sustatzea eta horien jarraipena egitea

P-A7

Hondeatutako lurzoruetako hondakinak prebenitzeko jarduerak (hondatuak eta ez hondatuak)

P-A7-1 EAEko errealitatean aplika daitezkeen tokiko tratamendu-teknologiaren bideragarritasunari buruzko ikerketak sustatzea, eta aipatutako tokiko saneamendu-teknologiaren erabilera sustatzea, erauzketaren eta isuriaren aurrean

P-A7-2 Erauzketaren ordezeko aukeren sustapena, udaletako Hirigintza Sailekin, eta hirigintzako arauetan zein aparkalekuen eta biaduktuen kontratazio-agirietan sartzea

P-A7-3 Euskal udalerrietan, kutsatutako lurzoruen kudeaketaren integrazioari eta hirigintzan hondeatutako lurzoruen berrerabilpenari edota balorizazioari buruzko irizpideak sustatzea.

⁸ Garrantzitsua da ziurtatzea horrek EZ duela ingurumen-eragin negatiboa izan dezakeen produktu jakin batzuen aurretiazko aldaketa sustatzen.

P-A8-1 Sortzen ari diren hondakinetarako ikerketa sustatzea, horiek zeintzuk diren, zer kopurutan sortzen diren eta zeintzuk sortzen dituzten arazo gehienak jakiteko.

P-A8-2 Industriaz arduratzen den Sailarekin hitzarmena sustatzea, korrante horien prebentziorako ikerketa ZTBPN sartzeko

P-A8-3 EAEko teknologia-zentroetara eta unibertsitateetara irizpideak eramatea, arlo horretako ikerketa sustatzeko.

P-A8-4 Hondakinen prebentzioa sustatuko duten erakustaldi-proiektuak garatzea eta emaitza arrakastatsuak eragindako sektoreetara eramatea

P-A8-5 Eragindako sektoreei, bereziki hondakin arriskutsuen eta substantzia arriskutsuen murrizketaren hondakinen prebentzioko ekimen arrakastatsuen garapenean laguntzea, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren eta berariazko zein kanpoko diru-laguntzen bidez.

P-A8-6 Prozedura zehatzak prestatzeko eta azpiproduktuaren aitortpena errazteko mekanismoak ezartzea

P-A8-7 Azpiproduktuen aitortpena eskatzen duen sektoreren batekin, garapena lantzea⁹.

P-A8-8 Europar onartutako TEOen ezarpena sustatzea (IPPC transposizio lege dekretua), diru-laguntzen eta zerga-kenkariaren bidez

P-A8-9 952/1997 Errege Dekretuak onartutako hondakin arriskutsuen Minimizazio Ikerketaren inguruko jarduerak sendotzea, bere garrantziaren definizioaren, edukiaren azterketaren eta balorazioaren, urteko jarraipenaren, enpresen aholkularitzaren, eta abarren bidez, hondakin arriskutsuen ekoizle handiek euren hondakinen sorrera eta arriskugarritasuna prebenitzeko neurriak hartzeko betekizuna euren gain har dezaten

P-A8-10 Industria-konsumitzaileentzako minimizazio-planak sustatzea, helburu eta neurri proposamen zehatzekin; hala nola, ILPSren diru-laguntzak eta produktuen balio-bizitza luzatzera zuzendutako jardunbide egokiak eta teknologia garbiak sustatzea (taladrinak, olioak, etab.)

2.5.1.2. Gaikako Bilketa eta Bereizketa Programa

Programaren helburu estrategikoa «2020an, hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa gutxienez % 75koa izatea, eta bilketa-sistema espezifikokoak ezartzea da, arazo bereziak eragiten dituzten hondakinentzat». Kasu honetan, aurretik aipatutako irizpideen arabera, programa honetan sartu beharreko lehentasuna emandako korronteak honako hauek dira:

- Biohondakinak

⁹ Sektore kimikoa, adibidez

- Papera, zura, edukiontziak, metalak, beira
- Pilak/bateriak
- GEEH
- Etxeko hondakin arriskutsuak
- Nekazaritza- eta abeltzaintza-instalazioetako hondakin fitosanitarioak eta zoosanitarioak
- Egiturazko fibrozementua
- Hg amalgamak eta urak, termometroak eta laborategiko produktuen Hg
- Industria-nahasketak eta EEHak

Helburu zehatzek korrante bakoitzarekin dute zerikusia, eta honako hauetan laburtu daitezke:

- Korrante ezberdinetan, bilketa-tasak handitzea
- Korrante ezberdinetarako bilketa-sistema egonkorak sustatzea

Jarraian, Programa honetarako proposatutako ekintza nagusiak aipatzen dira:

2. Programa	Gaikako bilketa eta bereizketa
S-A1	Biohondakinen, paperaren eta kartoiaren, beiraren, zuraren, metalen, edukiontzien, GEEHen eta pilen gaikako bilketa eta bereizketa sustatzeko jarduerak
<p>S-A1-1 Hondakinen foru-planetan, etxeko zein ostalaritzako eta etxekoen antzekoak diren (arrandegiak, harategiak...) biohondakinen beste ekoizle handien biohondakinen gaikako bilketaren eta bereizketaren unibertsalizazioa sustatzea</p> <p>S-A1-2 Korrante horien bilketa- eta kontabilizazio-estrategiaren baterako proiektua sustatzea, Hiri Hondakinen Gidalerro berrien esparruan</p> <p>S-A1-3 Foru Aldundiekin eta gizarte-sektorearekin lan egitea, eta banaketa-sektorearen inplikazioa baloratzea, 3 Lurralde Historikoetako baldintza egokietan dauden GEEHen bilketa sustatzeko, konpontzeko eta, ondoren, bigarren eskuko moduan saltzeko (Garbiguneetan biltegitratzeko eremu zehatzak eta irizpideak gaitzea...)</p> <p>S-A1-4 Banaketa GEEHen gaikako bilketan eta bereizketan zein trazabilitatean sartzea sustatzea</p> <p>S-A1-5 GEEHen trazabilitate-teknologiaren eskala handiko aplikazioa bultzatzea</p> <p>S-A1-6 EAE mainan, horren aplikazioa zehaztu ondoren, sorreraren araberako aplikagarritasunaren ikerketa egitea, EAEko hiri- zein landa-eremuetan.</p> <p>S-A1-7 Inplikaturako eragileekin, pilen gaikako bilketaren eta bereizketaren hazkundera lantzea, lege-helburuak gainditzeko, herritarrentzako bereizketa-erraztasuna eta bilketaren unibertsaltasuna sustatzeko (adibidez, etxeko edukiontzi txikiak entregatuta), udalerrri guztietara iritsita. Pilen EELSKk sartzea, hitzarmenaren sinaduraren bidez, eta pila arriskutsuen kudeaketaren</p>	

garapenean laguntzea (NiMH, NiCd eta Litioa EAEn)

S-A2

Etxeko hondakin arriskutsuen, lan txikietako hondakinen, egiturazko fibrozementuen, merkurio-amalgamen, abeltzaintzako ustiapenetako hondakin fitosanitarioen eta zoosanitarioen gaikako bilketa eta bereizketa handitzeko jarduerak

S-A2-1 HHKOren esparruan, Garbiguneetan onar daitezkeen hondakinak homogeneizatuko dituen arau teknikoa prestatzea; bertan, egiturazko fibrozementua, lan txikietako hondakinak eta etxeko gainontzeko hondakin arriskutsuak sartuko dira

S-A2-2 Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak zehaztea, termometroen eta merkurioa duten beste produktu batzuk behar bezala biltzea sustatzeko

S-A2-3 Merkurioaren iturriari eta kudeaketari buruzko ezagutza sustatzea lehentasunezko sektoreetarako (adibidez: osasuna, kliniko publikoa eta pribatua). Odontologia-praktiken merkurio-isurien gutxikako murrizketa bermatuko duen Osasuneko eta Ingurumeneko erakunde eskudunen arteko lankidetzaren esparrua zehaztea eta ezartzea hiru Lurralde Historikoetako Odontologoaren eta Estomatologoaren Elkargo Ofizialekin (adibidez, iragazketa-tekniken erabilera sustatzea).

S-A2-4 Hondakin agrokimikoen (pestizidak, fitosanitarioak, zoosanitarioak, etab.) eta abeltzaintzako ustiapenetako medikamentuen hondakinen bilketa eta ondorengo kudeaketa koordinatzea, dagozkien Sailekin.

S-A3

Industriako, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa eta nahasketen kopuruaren minimizazioa sustatzeko jarduerak

S-A3-1 Industriako hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa sustatzea eta industria-nahasketak bezalako hondakinen kudeaketa minimizatzea (enpresa-mota guztiei zuzendua)

S-A3-2 Industrialdeetako industria-nahasketen gaikako bilketa- eta bereizketa-estrategiaren analisia

S-A3-3 Zepa beltzen, zurien eta erregogorren bereizketa sustatzea, hondakin-tipologia bakoitzaren ondoko balorizazioa errazteko.

S-A3-4 Ekoizleen eta zabortegetako industria-nahasketen eta eraikuntzako zein eraispenerako jatorrizko bereizketaren ikuskapena lehentasunezko gai bezala Ikuskapen Planean sartzea, 3 urtez

2.5.1.3. *Berrerabiltzeko Prestakuntza, Birziklapen eta Balorizazio Programa*

Programari lotutako helburu estrategikoa hondakinen % 60 berrerabiltzenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea da, 2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanez

- Aurretik ezarritako irizpideen arabera, programarako lehentasunezko korronteak honako hauek dira:
 - Biohondakinak
 - Papera, zura, plastikoa, beira, metalak

- EEH
- GEEH
- Zepa beltzak
- Pasta eta paper lohiak
- Moldaketa-hondar berdeak
- Hiriko HUA lohiak
- Hondeatutako lurzorua (hondatuak eta ez hondatuak)
- Autogestionatu daitezkeen hondakinak
- Erabiltzen ez diren itsasontziak

Beraz, helburu zehatzek HKLKK eskatutako edota, zehazki, «2020rako EAEko hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko Planaren» esparruan ezarritako lehentasuna emandako korronteen tasekin dute zerikusia¹⁰

Beraz, berrerabiltzeko prestakuntzarako, birziklapenerako eta balorizaziorako programa honekin lortu nahi diren helburu zehatzak honako hauek dira:

- EEHen balorizazio-estrategia amaitzea, zehaztutako egoera naturaleko materialak kanpo utzita, % 70eko pisuko balorizazio-tasa lortu arte.
- GEEHak berrerabiltzeko prestakuntza sustatzea
- Lehentasuna emandako hiri-hondakinen korronte bakoitzerako zehaztutako balorizazio-tasak lortzea (ikus ¡Error! No se encuentra el origen de la referencia. taula, jarraian), horrekin, guztira, gutxienez, pisuaren % 50 lortu beharko duten paper-, metal-, beira-, plastiko-, biohondakin-frakzioen edota bestelako frakzio birziklagarrien balorizazioa sustatuta.
- HEZen, altzairugintzako zepa beltzen, galdaketako hondarren, pasta-paper lohien eta HUA lohien korronte nagusien balorizazio-estrategiak amaitzea, horrela, korronte bakoitzerako zehaztutako balorizazio-tasak lortuta.
- Itsasontziak desagiteko irizpideak ezartzea eta zabaltzea, ahalik eta birziklapen eta balorizazio handiena lortzeko, sektorearekin batera.
- Hondakin arriskutsuen autogestioa sustatzea.
- Merkatu berrien garapena eta industria-hondakin ez arriskutsuen balorizazio-prozesuetatik ateratako bigarren mailako erabilera eraginkorra sustatzea, beste lehengai batzuen ordez.

¹⁰ 22/2011 Legean ezarritako 22.1. artikulua:

- 2020 aurretik, paper-, metal-, beira-, plastiko-, biohondakin frakzioetarako edo bestelako frakzio birziklagarrietarako berrerabiltzeko prestakuntzara eta birziklapenera zuzendutako etxeko eta merkataritzako hondakinen kopurua guztira % 50 izan beharko da, gutxienez, pisuari dagokionez.
- 2020 aurretik, hondakinen zerrendako 17 05 04 kategorian definitutako egoera naturaleko materialak izan ezik, berrerabiltzeko prestakuntzara, birziklapenera eta materialen beste balorizaziora zuzendutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakin ez arriskutsuen kopurua ekoiztutako pisuaren % 70 izan behar da, gutxienez.

Jarraian, Programa honetarako proposatutako ekintza nagusiak laburtzen dira:

3. Programa	Berrerabiltzeko prestakuntza, birziklapena eta balorizazioa
R-A1	Etxeko hondakinen berrerabiltzeko prestakuntza, birziklapena eta balorizazioa sustatzeko jarduerak
<p>R-A1-1 Existitzen diren eta etorkizuneko instalazioen ikerketa Foru Aldundiekin lantzea, gaika bildutako biohondakinen tratamendurako gaitasun nahikoa izateko, ahalik eta modu eraginkorrean (EAEko azpiegituren ikuspegi globala) eta, kasu bakoitzean, bilketa erlazionatutako azpiegiturara egokitzea.</p> <p>R-A1-2 MAGRAMAko materialen erabilera-dekalogoia EAEn baldintzetara egokitzea.</p> <p>R-A1-3 Korrante horren beste balorizazio-forma batzuen ikerketak sustatzea beste erabilera batzuetarako (pentsuak, kosmetika, elikagaien proteina-oinarriak...)</p> <p>R-A1-4 Nekazaritzaz arduratzen den Sailarekin batera, konposta ongarri gisa erabiltzeko aukerak aztertzea, EAE barnean zein kanpoan</p> <p>R-A1-5 Biohondakinetatik ondorioztatutako produktuak ongarri organo-mineral gisa erabiltzea sustatzea, produktu ongarrien Errege Dekretuaren eta Ongarrien Araudiaren aldaketaren arabera</p> <p>R-A1-6 EAEko Azpiproduktu Organikoen Kudeaketa Gida argitaratzea.</p> <p>R-A1-7 Foru Aldundiek gauzatutako ekintzen jarraipena, gaika zein masan bildutako biohondakinen % 100ak tratamendua jaso dezan.</p> <p>R-A1-8 Plan honekin lerrokatutako Hiri Hondakinen Gidalerroen prestakuntza eta onarpena</p>	
R-A2	Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak (EEH) berrerabiltzeko prestakuntza, birziklapena eta balorizazioa sustatzeko jarduerak
<p>R-A2-1 EEHtatik datozen birziklatutako agregakinen agindu teknikoa onartzea</p> <p>R-A2-2 Enpresei aholkua ematea, EEHtatik datozen materialen erabileraren arau teknikoa betetzen dela egiaztatzeko</p> <p>R-A2-3 Erabilera berrien ikerkuntzarekin eta normalizazio teknikoarekin jarraitzea</p> <p>R-A2-4 Erosketa Publiko Berdeko tresnak garatzea; Etxebizitza eta Garraio Sailekin, eraikuntza-enpresa handiekin, arkitektoekin eta udalekin hitzarmenak sustatzea. Lan publikoetan birziklatutako agregakinen kontsumoaren derrigortasuna araudian sartzea, Eusko Jaurlaritzako birziklatutako agregakinen erabileren Agindu Teknikoan preskribatutako erabilera ezberdinekin bat datozen gehieneko %etan</p> <p>R-A2-5 Udalei EEHen eta eraikuntza iraunkorraren prebentzioa, ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituzten ordenantzen garapenean laguntzea</p> <p>R-A2-6 EEHen kudeaketa egokia ikuskapen-planean lehentasun gisa sartzea 3 urtez</p> <p>R-A2-7 Zabortegien Ingurumen Baimen Integratuetan, EAEko instalazioetan balioztatu daitezkeen EEHen onarpena mugatzea.</p> <p>R-A2-8 EEHen azpiegituren mapa eta sorrera eguneratzea</p>	

R-A2-9 Aldizka, EEHen Azken Kudeaketa Txostenak aztertzea, gutxika, sorrerarioak hobetzeko.

R-A2-10 Hondeaketako soberakinen kudeaketa egokia ziurtatzeko kontrolkanpainak gauzatzea.

R-A2-11 Lan txikietatik datozen EEHen kudeaketa-azpiegituren eskuragarritasuna erraztea, onargarritasun-irizpideen homogeneizazioa sustatzeko.

R-A2-12 EEH Aurretzen tresna profesionalizatzea, bere erabilera inplikaturako eragile guztien artean zabaltzeko

R-A2-13 Gipuzkoan eta Arabako kuadrilla zehatzen batean EEHen tratamendu-instalazioa ezartzeko bideragarritasuna aztertzea.

R-A3

GEEHen berrerabiltzeko prestakuntza, birziklapena eta balorizazioa sustatzeko jarduerak

R-A3-1 3 Lurralde Historikoetan, nahikoa instalazio berriren ezarpena eta baimena sustatzea, GEEHak berrerabiltzeko prestakuntzarako

R-A3-2 GEEHen kudeaketa-sektorearekin, EHrako funtsezko irizpideak zehaztea eta MAGRAMAra eramatea

R-A3-3 Hitzarmena EELSKekin, berrerabiltzeko prestakuntzarako %rako; EAEko kudeaketako eta prestakuntzako kudeatzaile baimendun guztiak sartzea; ekodiseinua sustatzea, berrerabiltzeko prestakuntzako enpresei gailu berrerabilgarriak entregatzera derrigortzea. GEEHen trazabilitatea bermatuko duen fluxu-sistema prestatzea. EHZ kodeak esleitzeko irizpideak bateratzea

R-A3-4 GEEHren mailarekin batera, trazabilitatearen eta kontabilizazioaren hobekuntza aztertzea eta, azkenik, biltzaileak berrerabiltzeko prestakuntzarako eremuak gaitzera derrigortzea. Berrerabiltzeko prestakuntzari buruzko trebakuntza

R-A4

Altzairugintzako zepa beltzen berrerabiltzeko prestakuntza, birziklapena eta balorizazioa sustatzeko jarduerak

R-A4-1 Altzairuaren fabrikazio-prozesuan hobekuntzak sustatzea, zeparen prebentzioa eta zahartzapen egokia sustatzeko, etorkizunean, kalitate hobeko agregakin siderurgikoa sortzeko.

R-A4-2 Zepen 34/2003 Dekretua aztertzea, azken hamarkadan beste hondakin batzuekin gauzatutako araudiaren aurreko ikerkuntzarekin bat datozen erabilera gehigarriak ahalbidetzeko

R-A4-3 Sektorerekin batera, zeparen egungo erabilera posibleak aztertzea eta, behar izanez gero, beste arau batzuen garapena sustatzea.

R-A4-4 Sektorerari horren hondakinen ondorengo balorizaziorako beharrezkoak diren aurretratamenduak bilatzen eta ezartzen laguntzea, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren eta berariazko zein besteren diru-laguntzen bidez.

R-A5	Destintatze-lohiak, efluenten tokiko tratamendu-lohiak eta pasta-paper sektoreko lixiba berdeen berrerabiltzeko prestakuntza, birziklapena eta balorizazioa sustatzeko jarduerak
<p>R-A5-1 Kudeaketa-bide egonkorak hautatzea eta ezartzea (bide egingarriak baloratzea eta bideragarritasun handiena dutenak laguntzea, sektoreari epe motzean behar diren azpiegituren aldeko apustuan lagunduta).</p> <p>R-A5-2 Hondakinen kudeaketa-hierarkiaren ikuspuntutik erabilera-bide hobekak identifikatzen dituzten kudeatzaileei lehentasunez baimena ematea eta, behar izanez gero, teknikoki arautzea</p> <p>R-A5-3 Berrerabilpena sustatzea destintatze-lohien, lixiba berdeen eta efluenten tokiko tratamendu-lohien frakzio organikoen eta inorganikoen prozesuan¹¹.</p> <p>R-A5-4 Balorizazioko irtenbide zehatzen (sektorialak, ahal bada) eta aipatutako balorizazioa materializatzeko instalazioen aldeko sektorearen apustua lantzen duen Borondatezko Hitzarmena sinatzea, irtenbideen bilaketa ikerketen, berriazko edo besteren diru-laguntzen eta TGEZen bidez lagunduta, beharrezkoa izanez gero</p> <p>R-A5-5 I+G+b eta erakustaldi-proiektuak bermatzea, beste balorizazio-aukera batzuk bilatzeko, beharrezkoa izanez gero</p>	
R-A6	Galdaketako hondarren eta finen berrerabiltzeko prestakuntza, birziklapena eta balorizazioa sustatzeko jarduerak
<p>R-A6-1 Berreskuratutako hondarren tratamenduek kalitatezko hondarrak sortzea sustatzea eta berreskuratutako hondarren ezaugarriak galdaketen artean zabaltzea, hondarren balorizaziorako instalatutako gaitasuna agortuta, horien isuriaren kalterako</p> <p>R-A6-2 Benetako balorizazio-irtenbideak eta gaitasunak aztertzea</p> <p>R-A6-3 Zementu-enpresekin hitzarmenak sustatzea, gutxienez, galdaketako hondarren eta finen zati baten balorizaziorako, betiere, gainontzeko ordeko berreskuratze- eta birziklapen-bideek balioztatu daitezkeen honda guztietarako gaitasunik ez dutenean¹².</p> <p>R-A6-4 Sektoreari horren hondakinen ondorengo balorizaziorako beharrezkoak diren aurretratamenduak bilatzen eta ezartzen laguntzea, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren eta berriazko zein besteren diru-laguntzen bidez</p>	
R-A7	Hiriko HUA lohien berrerabiltzeko prestakuntza, birziklapena eta balorizazioa sustatzeko jarduerak
<p>R-A7-1 HUA lohien Dekretuaren betearazpena sustatzea, Nekazaritza Sailarekiko</p>	

¹¹ Erakustaldi-proiektu batean egiaztatu da, destintatze-lohiak lehortuta, frakzio organikoa eta inorganikoa bereizi daitezkeela; horrela, biek izan dezakete berrerabilpen-potentziala prozesuan, banaka

¹² Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren ikuspuntutik, zementu-enpresetan balioztatu beharreko lehentasunezko korronteen zerrenda ezartzea (hondarrek lehentasuna izango dute). Zementu-enpresen auzo-erakundeen edo hainbat lan-bileren bidez izan liteke.

lankidetzaren bidez, HUA lohi horiek nekazaritzan behar bezala erabiltzea sustatzeko (nekazariarentzako trebakuntza, gidak, irizpideak...)

R-A7-2 Balorizazioaren benetako gaitasunak eta ordezeko aukera posibleak aztertzea, sortutako balioztatu daitezkeen hondakin guztietarako gaitasunik izan ezean.

R-A7-3 Balorizazio-sektoreari merkatu eta balorizazio-gaitasun handiena duten bideetan laguntzea, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren, berariazko edo besteren diru-laguntzen edo erosketa berdearen bidez

R-A7-4 Hondakina sortzen duen sektoreari beharrezko aurretratamenduak egiten laguntzea, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren edo berariazko zein besteren diru-laguntzen bidez.

R-A7-5 Araudi teknikoa prestatzea, gainontzeko jardueretatik beharrezkoa dela baderitzo

R-A7-8 HUA lohien balorizazio-bideak aurkitzeko erakustaldi-proiektuak

R-A8

Erabiltzen ez diren itsasontzien birziklapena eta balorizazioa sustatzeko jarduerak

R-A8-1 Itsasontziak desegiteko irizpideak ezartzea eta zabaltzea, ahalik eta birziklapen eta balorizazio handiena lortzeko, sektorearekin batera, eta instalazioak baimentzea, aipatutako irizpideen arabera

R-A9

Hondakinen autogestioa sustatzeko jarduerak

R-A9-1 Autogestionatu daitezkeen hondakinak aztertzea.

R-A9-2 Hondakinen autogestioa sustatzea.

R-A9-3 Autogestio-eragiketen baimentzeari lehentasuna ematea.

R-A10

Hondeatutako lurzoruen birziklapena sustatzeko jarduerak (hondatuak eta ez hondatuak)

R-A10-1 Beste toki batzuetan balioztatzeko, hondeatutako lurzoruen bizitza-amaiera zehazteko eta, jatorrizko tokian zein beste batzuetan, hondeatutako lurzoruen berrerabilpena sustatzeko irizpideak garatzea. Berrerabiltzeko helbide posibleen bilaketa (adibidez, harrobien berroneratzea)

R-A10-2 Hondakin geldoen betegarrien/zabortegien baimena optimizatzea

R-A10-3 Hondatutako/kutsatutako lurzoruen berreskuratze-azpiegituren bideragarritasunaren ikerketari berriro ekitea (hondatutako eta kutsatutako lurzoruen transferentzia-zentroa eta lurzoruen bankua)

R-A11

Zeharkako jarduerak, hondakinen prebentzioaren eta balorizazioaren arloan

R-A11-1 Ijzeketa-hondakinen, mekanizatu-lohien, erregogorren, EEIEN zatiketako frakzio arinaren, GEEHen, burdinazkoak ez diren zepen eta edukiontzi arriskutsuen balorizazio-aukerak aztertzea (erakustaldi-proiektuak)

R-A11-2 Zementu-enpresetan kudeatu daitezkeen hondakinei lehentasuna ematen dien ikerketa prestatzea.

R-A11-3 TGEZen metodologia berritzeko aukera eta Planak sustatutako berrerabiltzeko prestakuntzako, birziklapeneko eta balorizazioko helburuekiko horren bermea aztertzea (**ez birziklapenaren eta balorizazioaren arloan, Programa guztiak hartzen ditu barne**)

R-A11-4 Hondakin arriskutsuen Onarpen Dokumentuen azterketa indartzea, ekoizleari balorizazio-tratamendua aplikatzea eskatuz, hondakinaren izaerak hala eskatzen duenean, eta EAEn existitzen diren tratamendu-aukeren berri ematea

R-A11-5 Balorizazio-tratamendua aplikatzeko eskakizunaren betearazpen-mailaren gaineko kontrola indartzea, betiere, hondakinaren izaerak baimentzen duenean; Onarpen Dokumentuek jasotzen dute eskakizun hori

R-A11-6 Desugerketa-azidoen ekoizle nagusiekin hitzarmenak sustatzea, horien balorizazioa bultzatzeko, EAeko instalazioetan

R-A11-7 Industria-olioen EELSKekin hitzarmena sinatzea, berrerabilpena, balorizazioa eta berroneratzea sustatzen jarraitzeko

R-A11-8 BBA handiko hondakinen energia-balorizazioa sustatzea

2.5.1.4. Eliminazioa Optimizatzeako Programa

Programaren helburu estrategikoa «Hondakinen ezabapena optimizatzea da, hondakin primarioen isurpenarekin amaituz eta isurpenok minimizatzeako bitartekoak garatuz gertutasun eta autosufizientzia printzipioak ezartzea exijituz hondakinen balorizazio eta ezabapenean, betiere baldintza baliokideetan eta martxan dauden zabortegeien eragina minimizatuz egin badaiteke».

Kasu honetan, programa honetan korronteei lehentasuna emateak irizpide zehatzak jarraitzen ditu, izaera ezberdinak izategatik, eta zerikusi handiagoa du isurtzeari utzi behar dioten korronteekin, hondakinen hierarkiaren aurreko estrategietako hobekuntza-aukeren arabera. Ondorioz, erabilitako irizpideak honako hauek dira:

- Sortzen duten problematikaren konpontze-indar handia duten korronteak, aurreko estrategien bidez. Beraz, irizpide horretatik ondorioztatutako korronteak prebentzio- edota birziklapen- eta balorizazio-tasa handiak proposatzen dituztenak dira, eta horiek isurtzeko ezintasunak aurreko estrategiak aldatu eta optimizatu ditzake, eta lortu beharreko eliminazio-tasak koherenteak izan behar dira beste estrategia batzuen tasekin.
- EAetik kanpo eliminatzen ari diren hondakinak.

Irizpide horien arabera, lehentasuna duten korronteak honako hauek dira:

- Berrerabiltzeko Prestakuntza, Birziklapen eta Balorizazio Programan lehentasuna emandako korronte guztiak
 - Kutsatutako lurzorua eta bestelako materialak
 - Beste HA batzuk (desugerketa-azidoak...)

Alde horretatik, ideia korronte horien isuria ahalik eta gutxien mugatzea da, Planaren denborazko esparruan, aurretik, hierarkiaren beste estrategiak landuta.

Eliminazioaren minimizazio-programa honekin lortu nahi diren helburu zehatzak honako hauek dira:

- Hiri-hondakin biodegradagarrien isuriari buruzko lege-betekizunen betearazpena.
- Lehen mailako hiri-hondakinen zero isuria, 2016rako
- Balioztatu daitezkeen korronteen eliminazioa murriztea
- Gure lurraldetik kanpo eliminatutako hondakinen % murriztea, tratamendua, orokorrean, EAEn baliokideak diren baldintzetan egin daitekeenean
- Osasunerako edo ingurumenerako arrisku onartezina diren zabortegiak identifikatzea, eta aipatutako arriskua onargarritasun-mailetara murrizteko neurriak hartzea.

Jarraian, Programa honetarako proposatutako ekintza nagusiak laburtzen dira:

4. Programa	Eliminazioa optimizatzea
E-A1	Balioztatu daitezkeen korronteen isuria (GEEH, paper-kartoia, beira, metalak, EEHak, zepak, galdaketa-hondarrak, papergintzako lohiak, hiriko HUA lohiak, biohondakinak, edukiontziak) mugatzeko eta jadanik isuritako materialak aprobetxatzeko jarduerak
	<p>E-A1-1 Ekoizleen eta zabortegien Ingurumen Baimen Integratuetan, balioztatzen auzerak eta nahikoa gaitasun duten hondakinak zabortegian uzteko aukera mugatzea.</p> <p>E-A1-2 Zabortegian uztearen bidezko hondakinen eliminazioa eta betegarrien betearazpena arautzen duen 49/2009 Dekretuan jasotako zabortegian utz daitezkeen hondakinen zerrenda araudiaren arabera zabaltzea, egun EAEn balioztatu daitezkeen hondakin gehiago barne har ditzan.</p> <p>E-A1-3 EAEn hondakinen isuriaren gaineko zerga aplikatzeari buruzko ikerketa prestatzea eta horren ezarpena sustatzea, isurtze- eta birziklapen-kostuak parekatzeko beharrezkotzat joz gero.</p> <p>E-A1-4 EAEn gehiegizko gaitasuna duten tratamenduetarako azpiegiturentzako baimenak ematea ukatzea eragin dezaketen kasuak zehazten dituzten irizpideen zerrenda osoa egitea.</p> <p>E-A1-5 Zabortegi monomaterialetarako edo eduki homogeen samarra duten zabortegietarako zabortegien meatzaritzaren balioa eta egingarritasuna aztertuko dituen ikerketa sustatzea.</p> <p>E-A1-6 Zepen, galdaketa-hondarren, pasta-paper lohien, HUA lohien, EEHen, GEEHen eta balioztatu daitezkeen beste korronte batzuen kudeaketa zuzena lehentasunezko gai gisa sartzeko Planearan, elkarren segidako 3 urtez</p>
E-A2	Hondakin arriskutsuen eliminazioaren eta EAetik kanpo tratatutako hondakin kopuruaren minimizazioa sustatzeko jarduerak
	<p>E-A2-1 Behar izanez gero, kostu osoak barneratuko dituzten eta, ezarritako hierarkiaren arabera eta gertuen dagoen instalazioan, kudeaketa erraztuko duten tresna ekonomikoak aztertzea eta martxan jartzea</p> <p>E-A2-2 Hondakinen arriskugarritasuna minimizatzea eta EAetik kanpo tratatzera bidalitako</p>

hondakinen kopurua murriztea

E-A2-3 Azpiegiturak dituzten hondakin arriskutsuen tratamendua sustatzea EAEn (hala nola, lohiak, ur oliotsuak, etab.), ekoizleei existitzen diren aukeren berri emanda eta, inplikaturako kudeatzaileekin, hitzarmenak ezarrita

E-A2-4 Hondakin horiek sortzen dituzten sektoreei horren hondakinen ondorengo balorizaziorako beharrezkoak diren aurretratamenduak bilatzen eta ezartzen laguntzea, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren eta berariazko zein besteren diru-laguntzen bidez.

2.5.1.5. Administrazioaren Eredugarritasunaren eta Gobernu Egokiaren Programa

Programari lotutako helburu estrategikoa «hondakinen arloko informazioa eta gardentasuna hobetzea; hondakinen arloko kudeaketa administratiboa erraztea eta bizkortzea da 22/2011 Legeak zein hondakinen arloko araudiak irekitako aukerak baliatuta; bai eta merkatu berdea eta enplegu sorrera sustatzea ere, Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana garatuz eta ezarriz».

Helburu hori helburu estrategikoa lortzen lagunduko duten hurrengo helburu zehatzetan azaltzen da:

- Hondakinen arloko informazioa eta estatistika hobetzea, bai eta hondakinen ekoizpenaren eta kudeaketaren gardentasuna eta kontrola zein jarraipena ere, plangintza hobea lortzeko, administratuari informazioa emateko eta erakunde gorenei informazio-betekizunei erantzun azkarragoa emateko.
- ILPSren administrazio-izapideen % 75 sinplifikatzea, 2016rako hondakinen inguruko legeria berriak irekitzen dituen aukeren arabera
- Sortutako eta ekoiztutako kopuruei buruzko informazioa eta Autonomia Erkidegoen arteko tokialdaketen kontrol-mekanismoak hobetuko dituen hondakinen lekualdaketen informazio-sistema izatea.
- Hondakin-korronte ezberdinen kategorizazioa, kontabilitatea eta trazabilitatea hobetzea.

Jarraian, Programa honetarako proposatutako ekintza nagusiak laburtzen dira:

5. Programa	Administrazioaren Eredugarritasuna eta Gobernu Egokia
B-A1	Informazioaren hobekuntzak sustatzeko jarduerak (inbentarioak, EHZ kodeen esleipena eta informazio-sistema integratua)

B-A1-1 Hondakin arriskutsuen, ez arriskutsuen eta hiri-hondakinen inbentarioak

egitea, urtea itxi ondoko 6 hilabeteetan.

B-A1-2 Kontabilitatearen hobekuntza lantzea Foru Aldundiekin, hiri-hondakinen inbentarioaren esparruan eta, zehazki, lan txikia jatorri duten EEHak kalkulatzeko metodologia ezartzea¹³.

B-A1-3 Hondakinak kontabilizatzeko irizpideak adostea beste Foru Aldundi batzuekin eta MAGRAMarekin

B-A1-4 e-administrazioa sustatzea, izapideak eta komunikazioak arintzeko, eta administrazioak paper-kontsumoa murrizteko.

B-A1-5 Administrazio-izapidetzea erraztuko duen tipologiaren arabera (GEEHenak, bereziki) kategorizazio-irizpideak egitea sustatzea.

B-A1-6 GEEHen trazabilitatea bermatzeko duen fluxu-sistema prestatzea sustatzea

B-A1-7 Euren EHZ kodearen esleipenak arazoak ematen dituzten korronteei eta azkenean aplikatutako kudeaketa-eragiketei buruzko ikerketa eta ondoko interpretazio-gida egitea

B-A1-8 Hondakinen arloko funtsezko elementu guztiak dituen informazio-sistema zehaztea eta izan litezkeen hobekuntzak aztertzea, eragindako eragileek informazioa erabiltzeko eta informazioa automatikoki eguneratzeko

B-A1-9 Zabortegien eta ekoizleen isuri-baimenak aldizka berrikustea

B-A1-10 Informazioan sakontzea, hondakinen arteko kudeaketa- eta lehiakortasun-datu errealak izateko, kudeaketa-bide beren bitartez, zementugintzarako lehentasuneko hondakinen zerrenda barne hartuta

B-A1-11 Baimendutako kudeatzaileen eta zabortegien zerrendak webgunean eguneratzea, baimendu eta hilabeteko epean.

B-A1-12 Hondakin Planaren jarraipena

B-A2

Administrazioaren hobekuntza, sinplifikazioa eta arintze handiagoa sustatzeko jarduerak

B-A2-1 Administrazio-sinplifikazio aukerak aztertzea, hondakinen arloko egungo legeriaren arabera, eta hobetu daitezkeen prozedurak eta argibideak sinplifikatzea

B-A2-2 2020rako, hondakinen kudeaketaren arloko izapidetze erredundanteen % 100 murriztea

B-A2-3 Hondakinen kategoriatan ezberdinak eta, bereziki, GEEHenak tratatzeko irizpide teknikoak prestatzea sustatzea.

B-A3

Hondakinen mugaz bestaldeko tokialdaketen kudeaketa hobea sustatzeko jarduerak

B-A3-1 Hondakinen mugaz bestaldeko tokialdaketan, lehentasuneko korrontek detektatzea, trebakuntza zein komunikazio kanpainak egitea eta, ondoren, eragindako eragile ekonomikoak ikuskatzea.

B-A3-2 Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioarekiko (Zerga Agentzia) eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioarekiko lankidetzarekin jarraitzea, gure lurralde-eremuko hondakinen trafikoaren kontrolari eta

¹³ Eurostatek dokumentu berria argitaratu du 2012ko azaroan: *Guidance on municipal waste data collection*.

tokialdaketa-mota horren Ikuskaritza Planaren garapen egokiari dagokienez

B-A3-3 Mugaz bestaldeko tokialdaketei lotutako dokumentazioan formatu elektronikoa erabiltzeko aukerak aztertzea

B-A4 Merkatu-aukerak sustatzeko jarduerak

B-A4-1 Planak ekonomikoki eragindako sektoreen jarraipena eta analisia, eta inpaktu hori leuntzen edo, behar izanez gero, bultzatzen lagunduko duten tresnen garapena

B-A4-2 Hondakinen sorrera (edozer hondakin-mota) zergapetuko duten zerga-aldaketen aukeraren azterketa, lanaren gaineko zerga-kargak ordezkaturak. Hau da, zerga-erreforma berde partziala izango litzateke, enpresentzako eta herritarrentzako Oko zerga-kostuarekin, eta etekin bikoitzarekin (ingurumenekoa eta ekonomikoa)

B-A4-3 Planaren esparruan irekitako merkatu-aukeren identifikazioa eta horien ondoko bultzada, bigarren Ekintza Planean

B-A4-4 Baliabide publikoen erabileraren eraginkortasun-azterketa - planak sortutako inpaktuaren eta, Planarekin erlazionaturako ekimenetatik abiatuta, euskal enpresen merkatu-kuotaren handiagotzearen azterketa egitea

2.5.2 BEHARREZKO AZPIEGITURAK

Jarraian, hondakin-tipologia bakoitzerako, korrante nagusietarako azpiegitura berrien behar posiblea aztertzen da:

a) Hondakin ez arriskutsuak

EAEn sortutako hondakin ez arriskutsuen kudeaketa-gaitasuna bermatuta dagoela uste da, existitzen den balorizazio- eta eliminazio-instalazioen sarearekin. Nolanahi ere, balorizazioa onartzen duten korranteetan balorizazio-tratamenduak aplikatzeko gaitasuna hondakin-motaren arabera aldatzen da.

Balorizazio-azpiegituren defizita detektatzen da hurrengo hondakinetarako:

- Pasta eta paper lohiak: Sektorearen posizionamendua behar da, aipatutako lohien behin betiko balorizazio-irteeren definizioan eta, irteera horien arabera, baliteke aipatutako lohien tratamendurako edo azken balorizaziorako azpiegiturak behar izatea. Gainera, erabat balioztatu ahal izan ezean, zabortegean behar bezala elimintzeko edo energetikoki balioztatzeko aurre-tratamenduak gaituko dituzten instalazioak beharko lirateke.
- HUA lohiak: Azpiegiturak behar dira, HUA lohiak lehortzeko. Gainera, balorizazio-azpiegituren beharra nabarmena bada ere, aipatutako beharra ezin da zehaztu, erakusketa-proiektuak edo horren nekazaritzako enpleguaren erregulazioa behar bezala landu arte
- Galdaketako hondarrak: Berrerabili edo balioztatu aurreko tratamendurako.

- Kutsatu gabeko lur hondatuak: Hondatutako lurzorua egokitzeko eta biltegitutzeko azpiegitura(k) behar d(ir)a, balioztatzeke. Halaber, geldoen zaborteia(k) behar d(ir)a, balioztatu ezin den frakzioa isurtzeko

b) Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak

Egoera ekonomikoak asko baldintzatzen ditu eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen balorizazio-behar posibleak; izan ere, eraikuntza-sektorean erregistratutako jardueraren beherakadak asko eragin dio hondakin-mota horren sorrerari. Existitzen diren azpiegiturak nahikoak izan daitezkeela esan daiteke, sorreraren joera alderantzikatu arte; izan ere, aipatutako distantzia-irizpidea (25 km) kasu guztietan ase ezin bada ere, existitzen diren instalazioek euren errendimendu osoa lortzea sustatu beharko da, errentagarritasun-faltaren ondorioz ixtea saihesteko. Hala ere, materialen garraio-kostuetatik ondorioztatutako aipatutako irizpidea dela eta, komenigarria da Gipuzkoako Lurralde Historikoko eta Arabako kuadrilla zehatzen bateko EEHen balorizazio-azpiegituren beharra aztertzea.

c) Hondakin arriskutsuak

Egun, hainbat motako 100 instalazio¹⁴ baino gehiagok eraturako EAeko hondakin arriskutsuen kudeaketa-gaitasuna gutxinaka kontsolidatu da azken hamarkadetan, ekimen pribatuaren ondorioz, bai eta, horretarako bere gaitasuna handitu zuen instalazioan, altzairugintzako hautsak birziklatzeko horien ekoizleek adostutakoa bezalako hitzarmenen ondorioz ere.

Aluminioaren bigarren mailako ekoizpenerako gatz-zepen tratamendurako azpiegituren nolabaiteko falta dago. Nolanahi ere, EAEn, ezarri berri den aluminioa galdatzeko instalazioari lotutako balorizazio-instalazioaren martxan jartzea aurreikusitako da, epe motzera.

d) Hiri-hondakinak

Hiri-hondakinen kudeaketa-azpiegituren plangintza Lurralde Historiko bakoitzaren eskumena da. Prebentzio edota Kudeaketa Plan bakoitza aztertuta, aurreikusitako instalazio eta azpiegitura guztiak gauzatu ondoren, onartzen duten korronteen balorizazio-tratamenduak aplikatzeko gaitasuna bermatuta egongo dela detektatzen da.

Nolanahi ere, hobekuntza-tartea detektatzen da, korronte edo eremu jakin batzuetan:

- Gaikako bilketarako eta bereizketarako eremuak izatea, Etxeko Hondakin Arriskutsuen eta egiturazko fibrozementuen zein GEEHen baldintza egokietan, azken kasuan, berrerabiltzeko prestakuntza ahalbidetzeko beharrezko baldintzak betetzen direla zainduta.
- Alta emandako Ekoizlearen Erantzukizun Luzatuko 9 Sistema Kolektiboak izanda ere (EELSK, lehen KSI), beharrezkotzat jotzen da sortutako GEEHen bilketa handitzera zuzendutako neurriak hartzea, hondakin-frakzio horri

¹⁴ Gutxi gorabehera, CTVFUri dagozkion 55 instalazio inguru sartu dira

buruzko Europako azken Zuzentaraua¹⁵ birlandatzen duen azken araudian jasotako helburuak lortu arte.

- Berrerabiltzeko prestakuntzaren arloan¹⁶, azken urteetan erregistratutako ekimenak bilketa-kanalak zein ondorengo tratamendu-eragiketak erraztuko dituzten neurri berriekin osatu behar dira.
 - Garbiguneen edo euren balio-bizitza agortu ez duten hondakinak uzteko eremu zehatzen puntu garbien gaikuntzak, bai eta bilketa horri buruzko irizpideak hartzeak ere, egoera hori hobetzea ahalbidetuko luke.
 - Gainera, zuntzak, tamaina handikoak eta GEEH (azken horietan, aipatu bezala, irteera estalia ez duten arriskutsuak edo etxetresna txikia bezalako beste kategorietan bereziki nabarmenduta) berrerabiltzeko prestakuntzarako beharrezko gaitasuna osatzeko instalazioak behar dira

2.5.3 INSTALAZIO BERRIAK EZARTZEKO IRIZPIDEAK

2020ko EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak hondakinen kudeaketa-instalazio berriak aktiboki sustatzen ez baditu ere, ezin da alde batera utzi instalazio-mota horren ondorengo garapenerako plangintza-esparrua dela, indarreko araudiak eta Planak berak ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak diren heinean.

Hori jakinda, Hondakinen Planak hondakinen kudeaketako instalazio berriak ezartzeko kontuan izan beharko diren ingurumen-irizpide batzuk zehazten ditu, izan litezkeen lotutako ingurumen-inpaktuak saihesteko edota, bestela, minimizatzen. Irizpide horiek kontuan izan behar dira honako hauetan:

- Hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berrien instalaziorako kokapenen definizioa.
- Aipatutako instalazioen ezarpena ahalbidetzen duten planak onartzeko prozeduretan zein helburu horrekin aurreikusitako proiektuak baimentzeko garatutako ingurumen-analisia.

Jarraian garatutako ingurumen-irizpideak hurrengo aspektuen inguruan egituratzen dira, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2014ko apirilaren 20eko Ebazpenaren bidez igorritako Erreferentziazko Dokumentuan ezarri bezala:

- Neurketa

¹⁵ 2015eko abenduaren 31ra arte, etxe partikularretatik (industrietako, saltokietako eta erakundeetako antzekoak barne) ateratako GEEHen urteko 4kg/biztanleko batezbestekoa gutxienez aplikatzen jarraituko duen, edo aurreko hiru urteetan dagokion estatu kidean batez beste bildutako GEEH pisu berdina (kopuru handiena hautatuta) aplikatuko duen gailu elektrikoaren edo elektronikoen (GEEH) hondakinei buruzko 2012ko uztailaren 4ko Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2012/19/UE Zuzentaraua.

¹⁶ Oraindik amaitu gabeko GEEH Zuzentzarauaren transposizioaren prozesuan, % 5eko helburua kontsideratu da, GEEH guztiak berrerabiltzeko prestakuntzarako gutxienezko ehuneko gisa, argiteriaren kategoriarako izan ezik.

- Teknika erabilgarri onenen aplikazioa
- Ingurumen-balore garrantzitsuen zaintza
- Ingurumen-arrisku berrien edo euren larritzearen prebentzioa.
- Hondakinen kudeaketako instalazio jakin batzuk jasotzeko sustatu behar diren eta garrantzitsuak ez diren eremuak balorean jartzea, naturalismoaren, kulturaren edo ingurumen-arriskuaren ikuspuntutik, ingurumenerako eragin kaltegarri gutxiago dituzten plan bideragarrien garapeneko ordezeko aukeren aldeko apustua sendotuta.

Nolanahi ere, jarraian zehaztutako ingurumen-irizpideez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Plan Sektorialetan sartutako bestelako irizpideak ere kontuan izan beharko dira. Horiek hemen kontsultatu daitezke:

<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-20698/eu/>

Ikus, jarraian, aipatutako irizpideak:

Instalazio berriak ezartzeko irizpideak

2020ko EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak hondakinen kudeaketa-instalazio berriak aktiboki sustatzen ez baditu ere, ezin da alde batera utzi instalazio-mota horren ondorengo garapenerako plangintza-esparrua dela, indarreko araudiak eta Planak berak ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak diren heinean.

Hori jakinda, Hondakinen Planak hondakinen kudeaketako instalazio berriak ezartzeko kontuan izan beharko diren ingurumen-irizpide batzuk zehazten ditu, izan litezkeen lotutako ingurumen-inpaktuak saihesteko edota, bestela, minimizatzen. Irizpide horiek kontuan izan behar dira honako hauetan:

- b) Hondakinen kudeaketarekin erlazionaturako instalazio berrien instalaziorako kokapenen definizioa.
- c) Aipatutako instalazioen ezarpena ahalbidetzen duten planak onartzeko prozeduretan zein helburu horrekin aurreikusitako proiektuak baimentzeko garatutako ingurumen-analisia.

Jarraian garatutako ingurumen-irizpideak hurrengo aspektuen inguruan egituratzen dira, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2014ko apirilaren 20eko Ebazpenaren bidez igorritako Erreferentziazko Dokumentuan ezarri bezala:

- d) Neurketa
- e) Teknika erabilgarri onenen aplikazioa
- f) Ingurumen-balore garrantzitsuen zaintza
- g) Ingurumen-arrisku berrien edo euren larritzearen prebentzioa.
- h) Hondakinen kudeaketako instalazio jakin batzuk jasotzeko sustatu behar diren eta garrantzitsuak ez diren eremuak balorean jartzea, naturalismoaren, kulturaren edo ingurumen-arriskuaren ikuspuntutik, ingurumenerako eragin kaltegarri gutxiago dituzten plan bideragarrien garapeneko ordezeko aukeren aldeko apustua sendotuta.

Nolanahi ere, jarraian zehaztutako ingurumen-irizpideez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Plan Sektorialetan sartutako bestelako irizpideak ere kontuan izan beharko dira. Horiek hemen kontsultatu daitezke:

<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-20698/eu/>

2.5.1.6. Instalazioen diseinu-irizpideak, dimentsionaketa barne sartuta

- a) Hondakinen kudeaketaren instalazioak proiektatu egin beharko dira, teknika erabilgarri onenak kontuan izanda, horiek gutxien kutsatzen duten teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren teknikak izanda.
- b) Ahal den heinean, instalatzea aurreikusten duen prozesu teknologikoak hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 8. artikuluan jasotako hondakinen kudeaketa-hierarkia bete beharko du.
- c) Denborazko garapenari dagokionez, sustatu daitezkeen instalazioek EAEko egungo eskaera aurreikusgarria eta tratatu nahi duten hondakin-korronteari lotutako egungo eta etorkizuneko lege-betekizunak izan beharko ditu kontuan; izan ere, hondakin jakin batzuk epemuga zehatzak dituzten helburu zehatzen eragina dute.
- d) Ez dira zabortegiak baimenduko, hurrengo 10 urteetarako EAEko zabortegian uztearen bidezko eliminazioaren gaitasun osoak aldi horretarako planifikatutako isuri-kalkulua % 200 gainditzen duenean.
- e) Ordezko aukeren konparazioko ingurumen-analisietan, honako hau ekartzen duten instalazioei emango zaie lehentasuna:
 - Balorizazio-forma berriak edo jadanik ezarritako balorizazio-prozesuen dibertsifikazioaren handiagotzea.
 - Jadanik ezarritako balorizazio-prozesuei buruzko hobekuntza teknologikoa.
 - Jadanik ezarritako instalazioek beharrezko gaitasuna estaltzen ez duten hondakinen kudeaketako korronteetarako instalatutako balorizazio-gaitasunaren handiagotzea.
 - Mugikortasun txikiagoa, horren ondoriozko osasunaren eta ingurumenaren gaineko inpaktuen minimizazioarekin, analisi logistikotik abiatuta justifikatuta.

2.5.3.2 Instalazioak kokatzeko irizpideak

- a) Ez da hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berrien kokapena baimenduko, jarraian adierazitako babes-erregimenen bat duten espazioetan edo eremuetan, erregulazio zehatzeko araudiak baimentzen ez badu. Azken kasu horretan, atal honen b epigrafean jasotakoa aplikatuko da:
 - Parke naturalak. Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Medio_Ambiente/Espacios_Naturales/Espacios_Naturales_Protegidos_Ley_16_1994/ eta ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/PORN_PRUG/.
 - Biotopo babestuak. Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Medio_Ambiente/Espacios_Naturales/Espacios_Naturales_Protegidos_Ley_16_1994/ eta ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/PORN_PRUG/.
 - Zuhaitz bereziak. Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGoeuskadiWAR/index.jsp>.

- ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Medio_Ambiente/Espacios_Naturales/Espacios_Naturales_Protegidos_Ley_16_1994/, eta deskarga hemen:
- **Natura 2000 Europako Sareak barne hartzen dituen eremuak edo lekuak: Garrantzi Komunitarioko Lekuak (GKL), Babes Bereziko Eremuak (BBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE).** Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Medio_Ambiente/Espacios_Naturales/Natura_2000/.
 - **Euskadiko naturaren babeserako ekainaren 30eko 16/1994 Legearen arabera izapidetzen ari diren Naturagune Babestuak (onartutako BNAP Hasiera Aginduarekin).** Informazioa eskuragarri hemen: <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-u95/es/u95aWar/lugaresJSP/U95aEntradaFiltroLugaresEnTramitacion.do?flnMenu=true>.
 - **Euskadiko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialaren II. Taldean sartutako hezeguneak.** Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/PTS/PTS_ZonasHumedas/.
 - **Urdaibaiko Biosfera Erreserba (5/89 Legea, EKPG, JSHGP).** Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Medio_Ambiente/Espacios_Naturales/Reservas_De_La_Biosfera/ eta ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/PORN_PRUG/.
 - **Txingudiko Plan Bereziak antolatutako eremua.** Kartografia erabilgarriaren deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/Planes_Especiales_De_Proteccion/.
 - **EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialeko Babes Berezi Zorrotzaren eta Babes Berezi Bateragarriaren kategoriak.** Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-565/es/contenidos/informacion/pts_litoral/es_7559/indice_c.htm, eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/PTS/PTS_Litoral/.
 - **Lurralde Plan Partzialek babestutako eremuak, euren natura-interes handiaren arabera.** Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-565/es/contenidos/informacion/ptp/es_1167/indice_c.html, eta deskarga hemen: <ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/PTP/>.
 - **Hirigintzako araudiak babestutako eremuak, euren natura-interes handiaren arabera.** Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/udalplan/visor/viewer.htm>, eta deskarga hemen: <ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/Udalplan/>.
 - **Interes bereziko eremuak Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoko «Kaltebera», «Bakanak» edo «Interes bereziko» kategorietan sartutako flora- edo fauna-espezie mehatxatuen banaketarako.**
 - **Mendebaldeko Kantauriko, Ekialdeko Kantauriko eta Ebroko Mugape Hidrografikoen Plan Hidrologikoetako Eremu Babestuen Erregistroko eremuak, bai eta aipatutako erregistroen bilketen babes-perimetroetan sartutako eremuak ere.** Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen:

ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Aguas_Interiores/REGISTRO_ZONAS_PROTEGIDAS/

- Euskal Kultura Ondarearen ondasun gisa kalifikatutako edo inbentariatutako Monumentuak, Monumentu Multzoak eta Kultura Eremuak.
- b) Jarraian adierazitako eremuetan, salbuespenezko kasuetan soilik onartuko da hondakinen kudeaketarekin zerikusia duten instalazio berrien kokapena, beste eremu batzuen xedaezintasuna edo egokitzapen-falta nahikoa justifikatzen denean:
 - i. Aurreko atalarekin erlazionatutako eremuak, aipatutako eremuaren babeseko araudi zehatzak dagokion instalazioaren ezarpena onartzen duenean.
 - ii. Interes bereziko eremuak Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoko «Babes Bereziko», «Kaltebera» edo «Bakana» kategorietan sartutako flora- edo fauna-espezie mehatxatuen banaketarako. Kartografia erabilgarriaren deskarga hemen: <ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Biota/Especies/> eta http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-u95/es/contenidos/ds_geograficos/cuadriculas_utm/es_opendata/indice.html
 - iii. Komunitate-interesa duten habitatak dituzten eremuak (92/43/CE Zuzentarauaren I. eranskina). Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: <ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Biota/Habitats/>.
 - iv. Katalogatutako interes geologikoko eremuak edo guneak. Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/bisorea/MapaBasico/index.html?conf=INGURUMENA/LIGs.xml>, eta deskarga hemen: <ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Geocientifica/Geologia/>.
 - v. Akuiferoen kutsaduraren aurrean oso zaurkorrak diren eremuak. Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: <ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Geocientifica/Geologia/>.
 - vi. EAeko Korridore Ekologikoen Sarea. Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Medio_Ambiente/Corredores_Ecologicos.
 - vii. LAzen Interes Naturalistikoko Guneen zerrendan eta EAeko Naturagune Garrantzitsuen Katalogo Irekian sartutako eremuak. Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Medio_Ambiente/Espacios_Naturales/Otros_Espacios_Naturales_De_Interes/
 - viii. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan, paisaiaren babesari, kudeaketari eta antolakuntzari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren esparruan ezarritako Paisaia Katalogoetan jasotako paisaia-interes bereziko eremuak (EAeko Paisaia Bitxien eta Nabarmenen Katalogoaren Aurreproiektuak nabarmendutako Eremuak). Kartografia erabilgarriaren deskarga hemen: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3074/es/contenidos/informacion/paisaje/es_1094/mapas_catalogo.html
 - ix. Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren Balore Estrategiko Handiko kategorian sartutako lurzoruak (behin betiko

onartzeke). Kartografia erabilgarriaren bistaratzea eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Planeamiento/PTS/PTS_Agroforestal/

- 500 urteko birgertatze-aldiak dituzten urpetu daitezkeen eremuak. Kartografia erabilgarriaren bistaratzea hemen: <http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGoeuskadiWAR/index.jsp>, eta deskarga hemen: ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/Aguas_Interiores/INUNDABILIDAD/.

- c) Ahal den heinean, hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berrien sustatzaileek presuntzio arkeologikoko eremuak zehazteko erregimena ezartzen duen urriaren 8ko 234/1996 Dekretuaren esparruan zehaztutako eta mugatutako Presuntzio Arkeologikoko Eremuetan kokatzea saihestuko dute. Aipatutako eremuak hondakinen kudeaketa-instalazioa ezartzeko erabiltzea aurreikusten denean, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 49. artikuluan eta aipatutako 234/1996 Dekretuan ezarritako babes-erregimena bete beharko da.
- d) Ahal izanez gero, hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berriak instalazioaren aurreikuspenaren aurreko 2 urteetan, urteko egunen % 90an, gutxienez, guztiz edo partzialki aire-kalitate Ona edo Oso ona duten udalerrietan kokatutako kokapenetan instalatuko dira (planaren izapidetzearen hasiera edo proiektu-baimenaren eskaera), hurrengo taularen arabera:

Airearen kalitatearen egoera	NO ₃ (µg/m ³)	SO ₃ (µg/m ³)	CO (µg/m ³)	O ₃ (µg/m ³)	PM10 (µg/m ³)	PM2,5 (µg/m ³)
Oso ona	0-50	0-42,5	0-5000	0-90	0-25	0-16
Ona	50-100	42,5-83,75	5000-7500	90-160	25,1-50	16-33
Hobetzeko modukoa	100-200	83,75-125	7500-10000	160-180	50.1-65	33-39
Txarra	200-400	125-166	10000-20000	180-270	65.1-82.5	39-50
Oso txarra	>400	>166	>20000	>270	>82,5	>50

- e) Hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berrien kokapenerako, antropizatutako lurzoruen berrerabilpena sustatuko da eta horri lehentasuna emango zaio, lurzoru naturalen edo urbanizatu gabeen artifizialtzearen aurrean. Ahal izanez gero, zabortegetan datzaten eliminazio-instalazioak zabortegei ez aktiboetan kokatuko dira.
- f) Euren karga kutsatzaile handiaren ondorioz inpaktu esanguratsua izan dezaketen uretarako isurien instalazioak direnean, euren kokapena biltokietatik edota industria-isuriak hartzen dituzten HUAetatik gertu izatea sustatuko da, eta horri emango zaio lehentasuna.

3. EAEKO HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO 2020RAKO PLANAREKIN ERLAZIONATUTAKO INGURUMEN BABESEKO HELBURUAK

3.1 ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAN JASOTAKO INGURUMEN HELBURU ESTRATEGIKOAK, PRINTZIOAK ETA IRIZPIDEAK

Jarraian, 2020ko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak EDn bildutako - helburuak, printzipioak eta irizpideak kontuan izateko modua deskribatzen da.

1) Natur-baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua

Hondakinen kudeaketa faunarentzako eta florarentzako arriskurik sortu gabe eta legez babestutako interes bereziko paisaiak zein tokiak kaltetu gabe gauzatuko da

➤ Hain zuzen ere, premisa horren pean, Planak hondakinen kudeaketako instalazio berriak baimentzeko kontuan izan beharreko ingurumen-irizpide batzuk zehazten ditu, izan litezkeen ingurumen-inpaktuak saihesteko/minimizatzeko. Horrela, «Instalazioen kokapenerako irizpideen» artean (ikus 2.5.3.2. atala), honako hauek jasotzen dira: batetik, (a) erregulazio espezifikoko araudiak baimendu ezean, hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berrien kokapena baimentzen ez duen babes-erregimenen bat duten espazioak edo eremuak, eta bestetik, (b) eskuragarritasun eza edo beste eremu batzuen egokitzapen falta nahikoa justifikatzen denean, hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berrien kokapena soilik salbuespenezko kasuetan baimenduko duten eremuak.

a) *Gutxinaka, zoruen artifizializatzeko-prozesuak eta suntsipen-erritmoak urritzea, bai eta nekazaritza-lurra babestea ere.*

- *Lurzoru naturalen edo ez urbanizatuen artifizialtzearen ordez, antropizatutako lurzoruen berrerabilpena sustatzea eta horri lehentasuna ematea.*

- *Lurzoru gehiago okupatu beharrean, lurraldea birziklatzen laguntzea, eta hirietako nahiz industrialdeetako espazioak eta azpiegiturak berritzea*

➤ Printzipio horren pean, «Instalazioen kokapenerako irizpideen» artean, Planak (ikus 2.5.3.2. atala) honako hau zehazten du:

e) Hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berrien kokapenerako, antropizatutako lurzoruen berrerabilpena sustatuko da eta horri lehentasuna emango zaio, lurzoru naturalen edo urbanizatu gabeen artifizialtzearen aurrean.

Ahal izanez gero, zabortegetan datzaten eliminazio-instalazioak zabortegei ez aktiboetan kokatuko dira.

- Gainera, salbuespenezko kasuetan soilik, hondakinen kudeaketarekin zerikusia duten instalazio berrien kokapena onartuko den eremuen artean, beste eremu batzuen xedaezintasuna edo egokitzapen-falta nahikoa justifikatzen denean («Instalazioen kokapenerako irizpideak» (ikus 2.5.3.2. atala, b atala)), Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren Balore Estrategiko Handiko kategorian sartutako lurzoruak sartzen dira (behin betiko onartzeke).

b) Natura eta bioaniztasuna babestea.

- *Arrisku naturalak dituen zoruaren hirigintza geldiaraztea (urpetzegarritasuna, higadura, akuiferoen karga...) eta gaitasun agrolotiko handikoa bezala katalogatutako eta babestutako okupazioa moteltzen joatea.*
 - *Mehatxuak nabarmen murriztea, funtsezko prozesu ekologikoak eta ekosistemen bilakaera-potentzialtasuna mantentzeko.*
 - *Lurraldeko paisaia baliabideen babesa sustatzea, eta bereziki paisaia bereziak eta kalitate eta naturaltasun handikoak zaintzea bultzatzea.*
 - *Habitaten arteko interkonexio igarobide ekologikoak babestea eta zaharberritzea.*
 - *Kosta- eta itsasertz-eremuak era integratuan eta iraunkorrean kudeatzea. Itsas-ingurumeneko kutsadura prebenitzea eta eliminatzea.*
 - *Ur-ekosistemen narriadura prebenitzea, horiek babestea eta euren egoera hobetzea, bai eta, euren ur-beharrak direla eta, zuzenean ur-ekosistemen menpe dauden lur-ekosistemena eta hezeguneena ere.*
 - *Mugapearen ur-masen egoera ona eta babes egokia lortzea*
 - *Lurpeko uren kutsaduraren murrizketa mailakatua bermatzea eta horiek gehiago kutsatzea saihestea.*
- «Instalazioak kokatzeko Irizpideen» a) eta b) ataletan jasotako eremuak (ikus 2.5.3.2. atala) printzipio guztiei erantzuna ematen dietela ulertzen da.

c) Erabilpenen eta jardueren integrazio eta kohesio espazial zuzena ahalbidetzea, mugikortasuna eragitea murrizteko.

- *EAEEn kudeaketako-defizita diagnostikatutako hondakinen kudeaketako azpiegituren sorreran laguntzea, merkatu askearen, autosufizientziaren eta gertutasunaren printzipioak errespetatuta.*
- Aurretik aipatu bezala, 2020ko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak ez du azpiegituren garapena zuzenean planifikatzen, bi arrazoi direla eta:
 1. Eusko Jaurlaritzako eskumen zuzena diren azpiegituri dagokienez (industria-hondakinen kudeaketarekin erlazionatutakoak), diagnostikoaren ondoren, aldi ez direlako sustapen publikoko azpiegiturak

beharrezkotzat jotzen; izan ere, ekimen pribatuak garatu beharko ditu, horrela, merkatu askearen eta autosufizientziaren printzipioak errespetatuta, horrela, aipatutako azpiegituren nahikotasuna bermatuko genukeelako.

Horretarako, ekoizlearen erantzukizun luzatuaren printzipioaren arabera, ezarritako helburuak lortzeko eta indarreko legeria betetzeko, sektore pribatuak gauzatu beharko dituen beharrezko azpiegiturak identifikatzen dituen diagnostikoa jasotzen da. (Atala: 2.5.2. Beharrezko azpiegiturak). Eta, ekonomiaren ikuspegitik, isuria aukera onena izaten ez jarraitzeko nahikoa mekanismo ezartzen dira (isuriaren gaineko zerga, balioztatu daitezkeen korronteen isuria ez baimentzea, ikuskapena...)

Gainera, Gipuzkoako eta Arabako kuadrilla zehatzen bateko EEHen tratamendurako azpiegituren bideragarritasun-analisiarekin erlazionatutako 2 ikerketa aztertzen dira.

2. Hiri-hondakinak kudeatzeko beharrezko azpiegiturak Foru Aldundien eskumena direlako eta, ondorioz, dagozkien lurralde-planetan jasotzen direlako. Plan honek aipatutako Plangintzak barne hartutako azpiegiturak hartzen ditu bere gain, eta markatutako helburuak lortzeko nahikotzat jotzen ditu.

Gainera, hain zuzen ere, Planaren hirugarren printzipiotik ondorioztatutako 2.5.3.2 «Instalazio berriak ezartzeko Irizpideak» atalean: Autosufizientzia, gertutasun eta unibertsalitate printzipioen arabera, *«aukeren konparazioko ingurumen-analisietan, lehentasuna emango zaie mugikortasun txikiagoa dakarten eta, ondorioz, analisi logistikotik abiatuta justifikatuta, osasunaren eta ingurumenaren gaineko inpaktuen minimizazioa eragiten duten instalazioei».*

Halaber, HE4. Hondakinen ezabapena optimizatzea, hondakin primarioen isurpenarekin amaituz eta isurpenok minimizatzeko bitartekoak garatuz gertutasun printzipioa ezartzea exijituz hondakinen balorizazio eta ezabapenean, betiere baldintza baliokideetan eta martxan dauden zabortegien eragina minimizatuz egin badaiteke. **Eta horretarako jarduerak ezartzen dira.**

Hori guztiarekin, merkatu askeko (merkatuak garatuko ditu nagusiki industria-hondakinen kudeaketarako azpiegiturak), autosufizientziako (beharrezko azpiegiturak tokialdatzen dira eta isuria aukera ekonomikoki errentagarriena ez izateko mekanismoak garatzen dira) eta gertutasuneko (mugikortasun txikiena eragiten duten azpiegiturak baimenduko dira) printzipioak errespetatzen dira.

- *Hondakinak eliminatzeko instalazioen eta nahastutako etxeo hondakinen balorizaziorako instalazioen sare integratuaren ezarpena, eliminazioa edo balorizazioa gertuen dagoen instalazio egoki batean baimendu dadin. Eta hori guztia, ingurumenaren eta osasun publikoaren babes-maila altuena ziurtatzeko teknologia zein metodo egokien erabileraren bidez.*

- Gertutasun-printzipioaren inguruan aipatutakoaz gain, instalazio berrien ingurumen-ontasuna «instalazio berriak ezartzeko irizpideak» atalean ezartzen da. Honako irizpide hartzen dira kontuan:

- Hondakinen kudeaketaren instalazioak proiektatu egin beharko dira, teknika erabilgarri onenak kontuan izanda, horiek gutxien kutsatzen duten teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren teknikak izanda.

- Denborazko garapenari dagokionez, sustatu daitezkeen instalazioek EAEko egungo eskaera aurreikusgarria eta tratatu nahi duten hondakin-korronteari lotutako egungo eta etorkizuneko lege-betekizunak izan beharko ditu kontuan; izan ere, hondakin jakin batzuk epemuga zehatzak dituzten helburu zehatzen eragina dute.

d) Hondakin-ekoizpenaren eta kudeaketaren hierarkia.

- Halaber, hierarkia-printzipioaren betearazpena aipatutako «instalazio berrien ezarpenerako irizpideen» artean ezartzen da:

Ahal den heinean, instalatzea aurreikusten duen prozesu teknologikoak hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 8. artikuluan jasotako hondakinen kudeaketa-hierarkia bete beharko du

2) Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea.

Hondakinen kudeaketa urarentzako, airearentzako edo zoruarentzako arriskurik sortu gabe gauzatuko da, zaraten edo usainen inguruko eragozpenik eragin gabe

OE4-Ingurune garbia eta osasungarria bermatzea

- a) OP-9 PM-10, PM2.5, Ozono eta NOx partikulen tasa kategoria onekoa eta % 95etik gorakoa izatea.*

Airearen kalitatea hobetzeko proiektuak sustatzea, gairiditzaiek eta eremu sentiberak dituzten eremuetan.

- b) OP11-Kutsatuta egon daitezkeen titulartasun publikoko lurzoru gehiago ikertu eta leheneratzea (% 5 gehiago)*

- c) Zaraten emisio kaltegarriak murriztea*

- Printzipio horien pean, «Instalazioen kokapenerako irizpideen» artean, Planak (ikus 2.5.3.2. atala) honako hau sartzen du:

- d) Ahal izanez gero, hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berriak instalazioaren aurreikuspenaren aurreko 2 urteetan, urteko egunen % 90an, gutxienez, guztiz edo partzialki aire-kalitate Ona edo Oso ona duten udalerrietan kokatutako kokapenetan instalatuko dira (planaren izapidetzearen hasiera edo proiektu-baimenaren eskaera), hurrengo taularen arabera:

Airearen kalitatearen	NO ₂ 3	SO ₂	CO	O ₃	PM10	PM2,5
-----------------------	----------------------	-----------------	----	----------------	------	-------

egoera		$\frac{3}{\text{m}^3}$	$\frac{3}{\text{m}^3}$	$\frac{3}{\text{m}^3}$	$\frac{3}{\text{m}^3}$	$\frac{3}{\text{m}^3}$
Oso ona	0-50	0-42,5	0-5000	0-90	0-25	0-16
Ona	50-100	42,5-83,75	5000-7500	90-160	25,1-50	16-33
Hobetzeko modukoa	100-200	83,75-125	7500-10000	160-180	50.1-65	33-39
Txarra	200-400	125-166	10000-20000	180-270	65.1-82.5	39-50
Oso txarra	>400	>166	>20000	>270	>82,5	>50

Jendaurrean jarritako dokumentua

3.2 ERREFERENTZIAZKO INGURUMEN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

Dokumentu honen 2.4. atalean aipatu bezala, 2020ko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planarekin harreman zuzena dutela uste den ingurumeneko esparru-dokumentuetan jasotako hurrengo ingurumen helburuak identifikatu dira:

Tresnak	Identifikatutako ingurumen-helburuak	Haien aplikagarritasunaren justifikazioa	Adierazleak	Ezarritako edo proposatutako mugak
2002-2020 aldirako Garapen Iraunkorrekiko Euskal Ingurumen Estrategia	Helburuetako bat 2016rako, zabortegean amaitzen duten HHak % 75era arte gutxitzea, 2012rako % 45era arte gutxitzea eta 2020rako sortutako kopuru osoaren % 30era arte gutxitzea da.	Zabortegean uzteak hondakinen kudeaketahierarkiaren azken tokia du.	Zabortegeietan utzitako hiri-hondakinek kg	Sortutako hiri-hondakinen kopuruaren % 30 murriztea (2020)
2011-2014 aldirako Ingurumen Esparru Programa (III. IEP)	3. helburu estrategikoa: Baliabideak eraginkortasunez erabiltzea eta kontsumo arduratsua sustatzea Helburua: Industriako hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen balioztapen-tasa % 5 handitzea.	Hondakinen kudeaketahierarkiaren aplikazioa hondakinen arloko edozer politika publikoaren bizkarrezurra izan behar da.	Industriako hondakin arriskutsuen balorizazio materiala. Industriako hondakin ez arriskutsuen balorizazio materiala.	Industriako hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen balioztapen-tasa % 5 handitzea.

4. INGURUMENAREN EGUNGO EGOERA.

4.1 POTENTZIALKI ERAGINDAKO LURRALDE-EREMUAREN INGURUMEN-KARAKTERIZAZIOA

Planaren aplikazioaren lurralde-eremua EAE osoa denez, zaila da eremu horren aspektu ezberdinen deskribapenaren sintesia gauzatzea: geologia, ingurune hidrobiologikoa, fauna... Nolanahi ere, horren inguruan kontsultatu daitezkeen informazio-iturri ugari daude, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Informazioko Sistema nabarmentzen da (www.ingurumena.net eta www.geo.euskadi.net webguneen bidez irisgarria).

Beste aldetik, 2020ko Hondakin Planak ingurumenaren zein paisaiaren aldetik sentiberenak diren EAEko eremuak hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berriak eraikitzea saihestu behar den eremu gisa identifikatu dituela nabarmentzen da.

4.2 EXISTITZEN DIREN INGURUMEN ARAZOAK


EAE osoaren ingurumen diagnostikoa aldizka lantzen da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak argitaratutako «EAEko ingurumenaren egoera» dokumentuetan. Argitaratutako azken dokumentua («2009ko EAEko Ingurumenaren Egoera») III. Ingurumen Esparru Programa (2011-2014) zehazteko egindako diagnostikoari dagokio.

Aipatutako diagnostiko-dokumentuak zein EAEko ingurumenaren arloko erreferentziazko beste dokumentu batzuk (GIEI, IEP) behin eta berriro adierazten dute gure Autonomia Erkidegoaren gaineko presio esanguratsuenak lurzorua eta uraren kontsumoaren gainean, hondakinen sorreran, airearen kalitatean, hiriko ingurumenean, kontinenteko uretan eta itsasoko zein kostako ingurumenean gauzatzen ari direla.

Hondakinei dagokienez, gizarte aurreratuenetako eta industrializatuenetako ingurumen-araz larrienetako bat dira, errenta-mailen eta sortutako hondakinen bolumenaren arteko harreman estua dela eta. Hondakinen kudeaketa desegokiak ingurune hartzaile gehien gaineko inpaktuak eragiten ditu: lurzoruak, ura, airea, osasun publikoa, etab.

Hain zuzen ere, «2009ko EAEko Ingurumen Egoerak» hurrengo IPEIE eskema (Indar eragileak, Presioak, Egoera, Inpaktuak eta Erantzunak) hartzen du barne; bertan, modu argian identifikatzen dira hondakinen kudeaketa eskasetik ondorioztatutako inpaktuak:

Modelo FPEIR conceptual del consumo de materiales y producción de residuos en la CAPV



Iturria: EAEko Ingurumenaren Egoera, 2009.

2020ko Hondakin Planaren diagnostikoaren aurreko dokumentuak jadanik nabarmentzen zuen baliabideen kontsumo gorakorra eta horrek osasunaren gainean duen inpaktua zein ingurune guztietako ingurumen-inpaktuak (lurzorua, ura eta airea, klima-aldaketan nabarmen eraginda), eta «*hondakin onena sortzen ez dena*» dela ondorioztatzen zuen.

Klima-aldaketaren gaineko eragina 2008-2012 aldirako Klima Aldaketaren Aurka Borrokatzeko Euskal Planean (KAABEP) ere nabarmentzen da; horrek hondakinen sektoreko isuriek EAEko isurien % 5 irudikatzen dutela nabarmentzen du (2006an, 1,3 MTm CO₂e-ko kopurua lortuta). Negutegi-efektuko gasen (NEG) isuri-iturri nagusiak honako hauek dira hondakinen sektorean:

- Hiri hondakin biodegradagarrien eliminazioa zabortegietan.
- Hondakin plastikoen errausketa.

Izan ere, KAABEPek hazkuntza txiki bat detektatzen du sektore horri lotutako isurietan, oinarri-urteari dagokionez, sortutako hiri-hondakinen kopurua gehiago handitu bada ere (+ % 24,5); hori metanoaren isuri txikiagoaren ondorioa izango litzateke, honako hauei esker:

- Birziklapenaren hazkuntza
- Balorazio energetikoa
- Zabortegiko gasaren berreskurapena

KAABEPek sektore horren bilakaera baldintzatzen duten faktore kritikoak zaborren sorreran eta horien eraketan laburbiltzen ditu, bai eta hondakinen berreskurapen- eta balorizazio-politikan ere, isurien murrizketa sortutako

hondakinentzako kudeaketa-aukera ezberdinen konbinazio optimoa aurkitzearen menpe egongo dela ondorioztatuta, aldi berean, hondakinen sorreran prebentzio-politikak sustatuta.

Hain zuzen ere, ildo horretan egiten du aurrera 2020ko Hondakin Planak.

Beste aldetik, kontuan izan behar da hondakinen kudeaketari lotutako baimen-prozedurak eta administrazio-izapideak orokortu egin direla; beraz, sortutako ia hondakin guztiek tratamendua jasotzen dute, baimendutako zirkuituaren barnean. Lurzoru kutsatuen berreskurapen-politiken garapen paraleloak aurreko urteetako hondakinen kontrolik gabeko uzteak hondatutako kokapen horien berreskurapenean aurrera egitea ahalbidetu du.

Bere aldetik, ingurune naturalaren babeseko eta lurralde-plangintzako tresnen garapenak hondakinen kudeaketako instalazioen garapena mugatzea ahalbidetu du, eremu sentikor jakin batzuetan.

Jendaurrean jarritako dokumentua

5. LURRALDEKO INGURUMEN UNITATE HOMOGENEOEN DEFINIZIOA

Lurraldeko ingurumen- eta paisaia-unitate homogeneousen definizioa dagokigun proiektuak edo planak aurreikusitako erabileretarako harrera-gaitasunean oinarritu behar da.

2020ko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak ez du jarduerarik aurreikusten lurraldean, baina hondakinen sorrerako, tratamenduko edo eliminazioko instalazio berrien ondoko garapenerako plangintza-esparrua da.

Hori da, hain zuzen ere, Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak egiten duen ariketa, 2.5.3.2. atalean deskribatu bezala, «Instalazioak kokatzeko irizpideen» artean, honako hauek ezarrita: (a) erregulazio espezifiko araudiak baimendu ezean, hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berrien kokapena baimentzen ez duen babes-erregimenen bat duten espazioak edo eremuak, eta bestetik, (b) eskuragarritasun eza edo beste eremu batzuen egokitzapen falta nahikoa justifikatzen denean, hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berrien kokapena soilik salbuespenezko kasuetan baimenduko duten eremuak.

Horrela, azpiegitura probableen kokapenaren inguruan identifikatutako ingurumen-unitateak (hondakinak sor ditzaketen instalazio berriak, hondakinak aldi baterako biltzeko zentroak, hondakinak tratatzeko instalazioak eta zabortegiak) honako hauek dira:

5.1 1. UNITATEA. INGURUMENAREN ETA PAISAIAREN ALDETIK SENTIBERAK DIREN EREMUAK

Natura-, kultura- edo paisaia-balio handiko espazioak dira eta, bertan, hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazioak saihestu behar dira:

- Euskal Herriko Natura Zaintzeari buruzko ekainaren 30eko 16/1994 Legeak babestutako Naturagune Babestuak: Parke Naturalak, Biotopo Babestuak, Aparteko Zuhaitzek okupatutako tokiak, Natura 2000 Sarea eratzen duten eremuak, izapidetzen ari diren Naturagune Babestuak.
- Eremu Hezeen LAPEko II. Taldeko hezeguneak.
- Urdaibaiko Biosferaren Erreserba. (5/89 legea, EKPG, JSHGP)
- Txingudiko Plan Bereziak antolatutako eremua.
- EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialeko Babes Berezi Zorrotzaren eta Babes Berezi Bateragarriaren kategoriak.
- Lurralde Plan Partzialek babestutako eremuak, euren natura-interes handiaren arabera.
- Hirigintzako araudiak babestutako eremuak, euren natura-interes handiaren arabera.

- Mendebaldeko Kantauriko, Ekialdeko Kantauriko eta Ebroko Mugape Hidrografikoen (MH) Plan Hidrologikoetan (PH) ezarritako Eremu Babestuen Erregistroko (EBE) eremuak, bai eta EBERen bilketen babes-perimetroak ere.
- Interes bereziko eremuak Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoko «Galzorikoak», «Kalteberak», «Bakanak» edo «Interes bereziko» kategorietan sartutako flora- edo fauna-espezie mehatxatuen banaketarako.
- Komunitate-interesa duten habitatak dituzten eremuak (92/43/CE Zuzentarauaren I. eranskina), bereziki, lehentasunezko habitatak edota bertako basoak.
- Katalogatutako interes geologikoko eremuak edo guneak.
- 10, 100 eta 500 urteko uholde-uraldiek eragindako gainezkatu daitezkeen eremuak.
- Akuiferoen kutsaduraren aurrean oso zaurkorak diren eremuak.
- EAEko Igarobide Ekologikoen Sarea, bai eta Arabako LHko lotura ekologikoaren estrategian zehaztutako sarea ere.
- LAZen Interes Naturalistikoko Guneen zerrendan eta EAEko Naturagune Garrantzitsuen Katalogo Irekian sartutako eremuak.
- Paisaia-balio handiko eremuak (EAEko Paisaia Berezi eta Aparten Katalogoaren Aurreproiektuan eta Arabako LHko Paisaia Berezi eta Aparten Katalogoan nabarmendutakoak)
- Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren Balore Estrategiko Handiko kategorian sartutako lurzoruak (behin betiko onartzeke).
- 500 urteko birgertatze-aldiak dituzten urpetu daitezkeen eremuak.
- Euskal Kultura Ondarearen ondasun gisa kalifikatutako edo inbentariatutako Monumentuak, Monumentu Multzoak eta Kultura Eremuak.

5.2 2. UNITATEA. HONDAKINEN KUDEAKETAKO INSTALAZIOAK HARTZEKO EREMU EGOKIENAK

Jadanik artifizialdutako lurzoruak, zabortegi zaharrak, hondatutako eremuak, natura-balio eskasekoak eta abar dira. Laburbilduz, balio eskaseko eremuak dira eta instalazio berri probableak hartzeko euren gaitasuna handiagoa da. Beraz, ahal izanez gero, han kokatu behar dira aipatutako azpiegiturak, aipatutako irizpideen arabera.

Planak ezarritako «Instalazioak kokatzeko irizpideen» artean, honako eremu hauek jasotzen dira:

- b) Hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako instalazio berrien kokapenerako, antropizatutako lurzoruen berrerabilpena sustatuko da eta horri lehentasuna emango zaio, lurzoru naturalen edo urbanizatu gabeen artifizialtzearen aurrean.

Ahal izanez gero, zabortegietan datzaten eliminazio-instalazioak zabortegi ez aktiboetan kokatuko dira.

6. HONDAKIN PLANAREN ERAGINAK IKUSKATZEKO PROGRAMA

6.1 PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Hondakinen sorreraren eta kudeaketaren bilakaerak, hondakinekin erlacionatutako araudi berriaren onarpenak eta egoeraren zein merkatuaren aldaketek edozer hondakin-plangintza aldizka berrikustea beharrezko bihurtzen dute.

Gainera, hori aipatutako plangintza garatzeko eta emaitzak lortzeko Arrakastarako Faktore Kritikoa dela frogatu da.

Alde horretatik, «2020rako Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planean» jasotako Programen eta Jarduera Ildoen garapen osoa bermatzekoa, aurrerapen-maila ebaluatzea, zailtasunak detektatzea eta desbiderakuntzak zuzentzea eta 2016rako zein 2020rako ezarritako helburuak lortzea ahalbidetuko duten Planaren aldizkako jarraipenari eta berrikuspenari lotutako tresnak, metodologia eta erantzukizunak zehazten dira.

6.1.1. Jarraipen-sistema

Lehen aldian, Plana 2014-2016 hiru urteko ekintza-planarekin batera joango da; horren gainean, dagokion urteko kudeaketa-plana eguneratzen joango diren urteko azaleko ebaluazioak egiten joango dira.

Hirurtekoaren amaieran, horren inguruko emaitzen eta informazio publikoaren argitalpena ekarriko duen horren azterketa sakona egingo da, bai eta urtero aztertzen jarraituko den hurrengo laurtekorako Lan Plangintza berriaren garapena ere.

6.1.2. Jarraipen-adierazleak

Helburu estrategikoen betearazpena ebaluatzeko, jarraian jasotako adierazleak ezartzen dira:

2. taula: 2020ko EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren helburu estrategikoen jarraipen-adierazleak

PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU PARTZIALAK - ALDI BATERAKO	ADIERAZLEAK
Sortutako hondakinen kopuru totala % 10 jaistea 2020rako, erreferentzia urtetzat 2010 hartuta; baita hondakinen arriskugarritasuna jaistea ere	<ul style="list-style-type: none">– 2010eko hondakin guztien gaineko % 5eko murrizketa 2016rako, eta % 10ekoa 2020rako.– Hondakin arriskutsuen sorreraren % 2ko murrizketa 2016rako, eta % 5ekoa 2020rako– 75 t hondakin/miloi euroko kopurua lortzea (EAeko BPG) 2020rako	<ul style="list-style-type: none">– Hondakin arriskutsuen sorrera-tonak.– Hondakin ez arriskutsuen sorrera-tonak– Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen sorrera-tonak– Etxeko eta Merkataritzako Hondakinen sorrera-tonak– Sortutako milioi euro bakoitzeko sortutako hondakin-tonak

PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU PARTZIALAK - ALDI BATERAKO	ADIERAZLEAK
	<ul style="list-style-type: none"> - Hondakin arriskutsuen 24 t (kutsatutako lurzoruak, egiturazko fibrozementu-hondakinak eta PCB/PCT dituzten olioak/gailuak kanpo) / milioi euroko kopurua (industriako BPG) lortzea 2020rako - Etxeko hiri-hondakinen 448 kg /bizt.urteko kopurua lortzea 2016rako, eta 443 kg/bizt.urte (hiri-hondakinen 961.723 t) 2020rako - Biohondakinen, edukiontzien, etxeko HAen, EEHen eta GEEHen sorreraren % 5etko murrizketa 2016rako, eta % 10ekoa 2020rako - Erabilera bakarreko plastikozko poltsa ez biodegradagarrien % 80ren ordezkapena 2016rako, eta % 100ekoa 2018rako, eta lotutako beste lege-betekizun batzuk 	<ul style="list-style-type: none"> - Sortutako hondakin arriskutsuen tonak (kutsatutako lurzoruak, egiturazko fibrozementu-hondakinak eta PCB/PCT dituzten olioak/gailuak kanpo) / EAeko industriako BPG - Sortutako hondakin ez arriskutsuen tonak (EEH kanpo)/ EAeko industriako BPG - EAEn per capita sortutako Etxeko eta Merkataritzako Hondakinen tonak (Kg/(bizt.urte)) - EElen piezen edo osagaien berrerabilpen % - Erabilera bakarreko plastikozko poltsen ordezkapen %, 2007an merkaturatutakoei dagokienez
<p>Hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa gutxienez % 75koa izatea 2020an, eta bilketa-sistema espezifikoak ezartzea arazo bereziak eragiten dituzten hondakinentzat</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Biohondakinen gaikako bilketa eta bereizketa % 20ra arte handitzea 2016rako, eta % 50era arte, 2020rako - EEHen gaikako bilketa eta bereizketa % 60ra arte handitzea 2016rako, eta % 70era arte, 2020rako - Paperaren, beiraren, edukiontzien, metalaren eta zuraren gaikako bilketa eta bereizketa % 55era arte handitzea 2016rako, eta % 70era arte, 2020rako - Pilen eta baterien gaikako bilketa eta bereizketa % 60ra arte handitzea 2016rako, eta % 80ra arte, 2020rako, eta pila- zein metagailu-mota ezberdinetarako 1991/157/CEE Zuzentarauak ezarritako baldintzak betetzea - 4 korrontetarako bilketa-sistema egonkorra ezartzea: amalgamak eta merkurioa duten urak eta beste hondakin batzuk, nekazaritzako eta abeltzaintzako instalazioetako hondakin fitosanitarioak eta zoosanitarioak, etxeko HAK eta egiturazko fibrozementua 	<ul style="list-style-type: none"> - Gaikako bilketaren eta bereizketaren tasa globala - Biohondakinen gaikako bilketa- eta bereizketa-tasa - EEHen gaikako bilketa- eta bereizketa-tasa - Paperaren, beiraren, edukiontzien, metalaren eta zuraren gaikako bilketa- eta bereizketa-tasa - Olioien eta koipe jangarrien gaikako bilketa- eta bereizketa-tasa - Zuntzen gaikako bilketa- eta bereizketa-tasa - Pilen eta baterien gaikako bilketa- eta bereizketa-tasa - GEEHen gaikako bilketa- eta bereizketa-tasa (kg/bizt.urte) - GEEHen gaikako bilketaren eta bereizketaren % (aurreko hiru urteetan, EAeko merkaturatutako GEEekin konparatuta) - Martxan jarritako bilketa-sistemak eragindako eragileekin batera

PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU PARTZIALAK - ALDI BATERAKO	ADIERAZLEAK
<p>Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea 2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanez</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Sortutako GEEHen % 2 berrerabiltzeko prestatzea 2016rako, eta % 5, 2020rako. • Korrante birziklagarrien (papera eta kartoia, beira, plastikoak, metala, zura) % 40 berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzea 2016rako, eta % 50, 2020rako. • Biohondakinen % 20 balioztatzea 2016rako, eta % 50, 2020rako • GEEHei buruzko 2012/19/UE Zuzentarauak ezarritako GEEH kategoria bakoitzeko gutxienezko balorizazio- eta birziklapen-helburuak lortzea, 2015 eta 2018 urteetarako • Gutxienezko eraginkortasun-mailak lortzea, pilen birziklapenaren arloan, 1991/157/CEE Zuzentarauaren arabera • Gehienez, 2015eko urtarrilaren 1erako, gutxienez, ibilgailu bakoitzeko eta urteko batezbesteko pisuaren % 95 berrerabiltzeko eta balioztatzeko helburua lortzea. Data hori baino lege, gutxienez, ibilgailu eta urte bakoitzeko batezbesteko pisuaren % 85 berrerabili eta birziklatu beharko da. • Altzairugintzako zepa beltzen % 80 balioztatzea 2016rako, eta >% 90, 2020rako • Papergintzako lohien % 90 balioztatzea 2016rako, eta ≈% 100, 2020rako • HUA lohien % 90 balioztatzea 2016rako, eta ≈% 100, 2020rako • Galdaketa-hondarren % 60 balioztatzea 2016rako, eta % 75, 2020rako • EEHen % 60 balioztatzea 2016rako, eta % 70, 2020rako (170504 EHZ kanpo) • Hondakin arriskutsuen % 63 balioztatzea 2016rako, eta % 65, 2020rako 	<ul style="list-style-type: none"> - Hondakin Arriskutsuen balorizazio materialaren % - Hondakin Ez Arriskutsuen balorizazio materialaren % - Eraikuntzako eta Eraispeneko Hondakinen balorizazio materialaren % - Hiri Hondakinen balorizazio materialaren % - Korrante birziklagarrien berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntzaren % - Hondakinen gaikako bilketaren eta bereizketaren % - Gaikako bilketa- eta bereizketa-programaren korranteen bilketa-tonak - GEEHen birziklapen edo balorizazio %, kategoriaka - Gaika bildutako olioien birziklapenaren % - Gaika bildutako olioien balorizazioaren % - Gaika bildutako olioien berronertzearen % - EElen birziklapenaren % - EElen balorizazio energetikoaren % - Edukiontzien birziklapenaren % (guztira eta materialaren arabera: paper-kartoia; metala, plastikoa eta zura) - Edukiontzien balorizazio energetikoaren % (guztira eta materialaren arabera: paper-kartoia; metala, plastikoa eta zura)

PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU PARTZIALAK - ALDI BATERAKO	ADIERAZLEAK
<p>Hondakinen eliminazioa optimizatzea, lehen mailako hondakinen isuria eliminatuta, horiek minimizatzeke tresnak garatuta, hori gure lurraldetik kanpo egitea saihestuta, EAEn baldintza baliokideetan egin daitekeenean eta existitzen diren zabortegien inpaktua minimizatuta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2016rako lehen mailako hiri-hondakinen zero isuria eta hiri-hondakin biodegradagarrien isuriari buruzko lege-betekizunak. • 2010eko % 49ko eliminazioa gehienezko % 40ra murriztea • 	<ul style="list-style-type: none"> - Zabortegian utzitako biohondakinen % - Zabortegian utzitako altzairugintzako zepa beltzen, pasta-paper lohien, HUA lohien, EEHen harri-frakzioaren eta burdin-galdaketako moldaketa-hondarren %. - Zabortegian utzitako hiri-hondakinen % - Aldez aurreko tratamendurik gabe isuritako hiri-hondakinen %. - Desugerketa-azidoen, taladrinen eta erabilitako industria-olioen, pilen eta metagailuen eliminazio %, EAetik kanpo eta barnean, eta EAEn EAetik kanpo eliminatutako hondakin arriskutsuen tonak
<p>Hondakinen arloko informazioa eta gardentasuna hobetzea; hondakinen arloko kudeaketa administratiboa erraztu eta bizkortzea 22/2011 Legeak zein hondakinen arloko araudiak irekitako aukerak baliatuta; eta merkatu berdea eta enplegu sorrera sustatzea Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana garatuz eta ezarriz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Inbentarioen % 100 hurrengo urteko lehen 6 hilabeteetan argitaratzea. • Administratuen asetasuna >7, 2020rako administrazio-sinplifikazioari eta bizkortzeari dagokionez • Enplegu berdearen sustapena, hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako enplegua % 6 handituta • Eragindako izapideen % 75 sinplifikatzea 2016rako, eta % 100, 2020rako 	<ul style="list-style-type: none"> - EAEko inbentarioen balioztatzea eta EEren zein Europako Ingurumen Agentziaren aldetik, 2016an - Administratuen asetasuna 10etik 7 baino handiagoa, 2020rako administrazio-sinplifikazioari eta bizkortzeari dagokionez - Inbentarioen erabilgarritasunaren balorazioa, 10etik 7tik gorakoa den plangintzaren informazio-betekizunei eta garapenari erantzuna emateko, 2016rako - Hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako enpleguaren handiagotzea - Sinplifikatutako izapideen %

6.2 PLANAREN INGURUMEN-ERAGINEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Ingurumenaren gaineko eragin esanguratsu probableei buruzko hurrengo atalean aipatu bezala, azpiegituren proposamen zehatza landu gabe, esparru globala ezartzen duen Hondakin Planaren plangintza-eskala dela eta, ezin da izan litezkeen ingurumen-eraginaren analisia gauzatu.

2020ko Hondakin Plan horren garapen gisa sortutako proiektuen eta planen ingurumen-prozeduren esparruan gauzatuko da kaltetuta egon litezkeen ingurumen-aldagaiei buruzko hondakinen kudeaketako etorkizuneko instalazioen kokapenaren eta gaitasunaren efektuen balorazioa. Jarraian, aipatutako balorazioa gauzatzeko erabili beharko diren adierazleak garatzen dira:

1) Lurzoruaren artifizialtzearen intentsitatea

a) Habitat naturalen, erdi-naturalen eta naturalizatuen azaleraren % EAEn.

b) Lurzoru artifizialduaren %

- c) Kalitate edo kontserbazio-egoera hobea duten habitat naturalen azalera
 - d) Berreskuratutako lurzoruen azaleraren %.
 - e) Kutsatuta dauden titulartasun publikoko lurzoruetatik leheneratutako lurzoruen azaleraren %.
- 2) Uren kalitatea
- a) Kontinenteko eta kostako uretara egindako isuriak
 - b) Uren kalitate-tasa
- 3) Airearen kalitate-tasa
- a) PM-10 partikulen tasa
 - b) PM 2.5 partikulen tasa.
 - c) NOx eta ozono kontzentrazioa
 - d) OMEk gomendatutakoak baino zarata-maila altuagoen eraginpean dagoen biztanleriaren kopurua

Jendaurrean jarritako dokumentua

7. INGURUMENEAN GERTA DAITEZKEEN ERAGIN ESANGURATSUAK: HONDAKIN PLANETIK ONDORIOZTATUTAKO INPAKTUEN ANALISIA

Bere izaera planifikatzailea dela eta, 2020ko EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak ez ditu lurralde-eragin zuzena duten ekintzak identifikatzean; aldiz, jarduera-mota ezberdinen aplikazioaren bidez, bere helburuak, HEZarenak eta HLKLrenak betetzeko bete beharreko parametroak eta helburuak ezartzen ditu.

Nolanahi ere, eta aurrekoa alde batera utzita, kontuan izan behar da aipatutako Hondakin Planak aipatutako lurralde-eragina izan dezaketen ekintzak betearazteko esparrua ezartzen duela; izan ere, ezarritako helburuen arabera, hondakinak kudeatzeko beharrezko azpiegiturak zehaztu beharko dira.

Lurralde-eragin horren zeharkako izaerak ingurumen-analisia Hondakin Planetik landu ahal izatea zailtzen du; izan ere, esparru globala ezartzen da, baina oraindik ez dago zehazki ebaluatu daitekeen azpiegituren (kopurua, kokapena...) proposamen zehatzik, izan litezkeen ingurumen-inpaktuei dagokienez. Egoera horretan, funtsezkoa da 2020ko EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plan horren garapen gisa sortutako planek eta proiektuek «Instalazio berriak ezartzeko irizpideei» erantzuna ematea (Ikus 2.5.3. atala), aukeren hautaketan zein kasu bakoitzari dagokion ingurumen-ebaluazioan, Planaren oinarri diren - printzipioak sartzen direla ziurtatu dadin.

2020ko Hondakin Plan horren garapen gisa sortutako zenbait proiekturen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko da, ingurumen-ebaluazioko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen eta Euskadiko Ingurumen Babeseko 3/98 Lege Orokorraren arabera. Indarrean den legeriaren arabera, honako hauek dira:

- a) Ohiko ingurumen-ebaluazioa jasandako proiektuak (Ingurumen ebaluazioko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen I. Eranskina):

8. taldea. Hondakinak tratatzeko eta kudeatzeko proiektuak.

a) Uztailaren 28ko 22/2011 Legeak, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoak, 3.e) artikuluan definitutako hondakin arriskutsuak errausteko instalazioak, eta hondakin horiek zabortegean uztea, segurtasun-deposituan gordetzea edo tratamendu kimikoa ematea (22/2011 Legearen I. eranskinaren D9 epigrafean ageri den definizioari jarraituz).

b) Hondakin ez-arriskutsuak errausteko instalazioak, edo hondakin horiek tratamendu fisiko eta kimikoen bidez ezabatzea (22/2011 Legearen I. eranskinaren D9 epigrafean ageri den definizioari jarraituz), egunean 100 tonatik gora tratatzeko gaitasuna baldin badute.

c) Hondakin ez-arriskutsuak hartzen dituzten zabortegeiak (hondakin geldoen zabortegeiak izan ezik), egunean 10 tona baino gehiago jasotzen badituzte, edo guztira 25.000 tonatik gorako edukiera badute.

9. taldea. Beste proiektu batzuk.

a) Honako proiektu hauek, natura-gune babestuetan eta Natura 2000 Sareko guneetan eta nazioarteko tresnen bidez babestutako eremuetan garatzen badira, abenduaren 13ko 42/2007 Legeak, natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzkoak, araututakoaren arabera:

1. Hondakin ez arriskutsuen zaborteziak, I. eranskin honen 8. taldean sartzen ez direnak, bai eta hondakin geldoak, edo ibaietatik, lurretik zein itsasotik erauzitako materialak, hektarea batetik gorako azalera hartzen badute.

b) Sinplifikatutako ingurumen-ebaluazioa jasandako proiektuak (Ingurumen ebaluazioko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen III. Eranskina):

9. taldea. Beste proiektu batzuk.

b) Hondakinak deuseztatzeko edo balioztatzeko instalazioak, I. eranskinean sartuta ez daudenak, industrialde bateko nabe baten barruan egikaritzen ez direnak, edo nolanhiko gaitasuna dutenak, jarduera aire zabalean edo industrialdeetatik kanpo egiten bada.

d) Txatarra biltegitzeko, baztertutako ibilgailuak biltegian gordetzeko, eta ibilgailuak ataltzeko eta deskutsatzeko instalazioak, industrialde bateko nabe baten barruan ez badaude, edo nolanhiko gaitasuna dutenak, jarduera aire zabalean edo industrialdeetatik kanpo egiten bada.

e) Hondakinak balioztatzea xede instalazioak (produktio-tokitik kanpo biltegitratzea barnean hartuta), ez baldin badira garatzen industrialde bateko nabe batean. Salbuetsita daude arriskurik gabeko hondakinen instalazioak, tratatzeko gaitasuna urtean 5.000 tonakoa edo txikiago bada, eta biltegian gordetzeko gaitasuna 100 tonatik beherakoa izanez gero.

10. taldea. Honako proiektu hauek, natura-gune babestuetan, Natura 2000 Sareko guneetan eta nazioarteko tresnen bidez babestutako eremuetan garatzen badira, abenduaren 13ko 42/2007 Legeak, natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzkoak, araututakoaren arabera.

c) II. eranskin honetan aintzat hartu gabeko edozein proiektu, 10 ha edo gehiagoko azalera lurzorua erabilera aldatzea baldin badakar

Halaber, azpiegitura berriak hartzeko lurralde- edo hirigintza-plangintza egokitzeko beharrak ekimen horien ingurumen-ebaluazio estrategikoa ekarriko du (EAE), planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen dute 21/2013 Legearen eta 21/2012 Dekretuaren arabera.

8. NATURA 2000 SAREKO TOKIETAKO ONDORIOEN EBALUAZIOA

Aipatu bezala, 2020ko EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana hondakinen eliminazioko edo balorazioko instalazio berrien garapen posibleko plangintza-esparrua izan daiteke. Instalazio horiek Natura 2000 Sarearen gainean izan dezaketen eragin-potentzialari dagokionez, bi kontu ezartzen dira (Ikus 2.5.3 atala):

- Zehazki jasotzen du Natura 2000 espazioetan azpiegitura berriak instalatzea saihestu behar dela
- Hondakinen kudeaketako instalazioen lehentasunezko kokapenerako zenbait irizpide zehazten dira, ingurumenaren, uraren, atmosferaren eta abarren gaineko eraginak saihestera/minimizatzera zuzendutakoak.

Aipatutako kontuak hartuta, EAEn dauden Natura 2000 espazioen gaineko eragin nabarmenik ez dela sortuko bermatzen da, 42/2007 Legeak ezarritako prebentzio-erregimena (45.2 art.) eta 92/43/CE Zuzentaraua (6.2 art.) beteta.

Edozer kasutan, ekimen zehatz bakoitza bere garaian baloratu beharko da, bere ingurumen-ondorioak ebaluatzeko. Kontuan izan behar da Hondakin Planak ondoko garapena behar duela, hirigintzako planen zein proiektuen arabera; aipatutako tresnak Natura 2000 Sarearen gaineko eragin-potentzialaren arabera ebaluatuko dira, Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45.4 artikulua ezarritakoari jarraiki.

9. AUKEREN HAUTAKETA PROZESUAREN LABURPEN ARRAZOITUA

Europako (HEZ) eta estatuko araudiek (Hondakin Legeak) Hondakinen autonomia-planen idazketa arautu behar dituzten printzipioak, irizpideak eta gidalerroak ezartzen dituzte; hala nola, 2014-2020 aldirako EAerako idatzitakoa. Alde horretatik, esparru-araudiak ezarritakoa betetzeko beharrak baldintzatu du aukeren kontsiderazioa.

Erreferentziazko ingurumen-helburuen koherentzia-analisirako eta justifikaziorako, 2020ko EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren lehen zirriborroaren prestakuntzarako izandako erabaki-prozesuan, honako aukera hauek izan direla kontuan esan liteke:

9.1 0 AUKERA (ZERO) EDO ESKU EZ HARTZEA

2020ko EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana ez idaztea ekarriko luke eta, ondorioz, orain arte indarrean egon den plangintzaren jarraipena (2009-2012 aldirako EAeko Hondakin Ez Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana, EAeko Hiri-hondakinak Planifikatzeko eta Kudeatzeko Gidalerroak, 2008-2011 aldirako EAeko Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana, etab.). Horrek hondakin-korronteen artean zatitutako plangintza izatea ekarriko luke, bai eta hurrengo jarduera-aldirako helburu berriak ez ezartzea ere. Hainbat arrazoik eragin dute aukera hori atzera botatzea:

- b) Lehenik eta behin, plangintza agortzearen arriskua dago (helburuen eta jarduera-ildoen betearazpena), bai eta helburu zein ekintza berriak ezartzeko esparru egokia ez izatearena ere.
- c) Bigarren, nabarmentzekoa da orain arteko plangintza hondakin-korronteen arabera egin dela; hau da, zatika. Arazoarekiko gerturatze globala zailtzen da; izan ere, analisi eta ekintza independenteak sustatzen dira. Nolanahi ere, Hondakin Plan berriak EAeko hondakinen sorrerari eta kudeaketari koherentzia ematen dion tratamendu integrala ahalbidetzen du.
- d) Beste aldetik, eta zero aukera atzera botatzeko, ingurumen-erakundearen trakzio-ekintzari lotutako onura izan da kontuan: aurreko hondakin-planen garapenak erakutsi du ingurumen-erakundeak sentsibilizazio-, trebakuntza-, koordinazio-, kontrol- eta abarreko tresnak aplikatzeak ekoizleei, kudeatzaileei eta hondakinen problematikan inplikaturako gainontzeko eragileei aplikatu dakizkiokeen lege-eskakizunen betearazpena errazten eta bultzatzen duela.
- e) Azkenik, nabarmentzekoa da plangintzaren arloko lege-betekizunak asetzeko beharrak ere Hondakin Plan berriaren idazketa zuzendu duela. Bestela, Eusko Jaurlaritzak ez lituzke hondakinen plangintzaren arloko bere betekizunak beteko; gainera, erreferentziazko legeriak markaturako helburuak eta epeak betetzea zailduko litzateke:
 - o Euskadiko Ingurumena Babesteari buruzko 3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, zera dio bere 77. artikuluan: «*Euskal Autonomia*

Erkidegoko ingurumen-organoari dagokio hondakin arriskutsuentzat eta beste zenbait hondakin-motarentzat plan zuzendariak egitea (...)», eta honako hau dio 73. artikulua: «*1.- Hiri-hondakin solidoen arloan (...), EAEko ingurumen-organoari dagokio hiri-hondakin solidoen kudeaketaren esparru-plangintzaren prestakuntza. Era berea, Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari dagokio apirilaren 24ko 11/1997 Legean zehaztutako kudeaketa-sistema integratuen baimena, ikuskapena eta onespena ere*».

- Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak (HLKL) honako hau jasotzen du 12.4 artikuluan: «*Autonomia Erkidegoei dagokie: a) Hondakinen prebentzioko autonomia-programen eta kudeaketa-planen prestakuntza (...)*», eta 15. artikuluan: «*1.- Dagozkien eskumen-eremuetan, administrazio publikoek 2013ko abenduaren 12a baino lehen onartuko dituzte hondakinen prebentzio-programak; eta horietan ezarriko da...*».
- HEZaren eta HLKLren prebentzioaren, balorizazioaren eta abarren arloko helburu kuantitatiboak ez betetzeaz gain.

Legeriak Plan integrala egitera behartzen ez badu ere, betekizun horiek eta aurretik zehaztutakoak betetzeko beharrak aipatutako 2020ko EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planerako proposatutako idazketa eta irismena eragin du.

0 aukeraren ingurumen-ondorioak (Plana ez idaztea edo ez aplikatzea):

Lege-baldintzen betearazpenaren eta eragile guztien arteko beharrezko koordinazioaren hara indian, kontuan izan behar da hondakinen sorrera ingurumen-arazo ugari sortzen dituen eta, ondorioz, irtenbide zehatzak eskatzen dituen errealitatea dela. Esparru horretan, plangintza ezinbestekoa da hondakinen arloko politika guztiak koordinatzeko eta zuzentzeko; baterako tratamenduak ingurumen-mailan irtenbide koherenteenak bilatzea ahalbidetu dezan, sorreraren murrizketan aurrera eginez, kudeaketa-aukerak optimizatzen diren bitartean.

Kasu askotan agortutako (gauzatutako) helburuak eta ekintzak dituen indarreko plangintza mantentzeak hondakinen kudeaketa bizi dugun errealitate aldakorrera egokitzea saihestuko luke. Beste aldetik, hondakin-korronteen ikuspegi zatikatua mantentzeak banakako tratamenduak ahalbidetu ditzake baina, hala ere, arazoaren ikuspegi integrala eta irtenbide globalak hartzea saihesten du. Hori are garrantzitsuagoa da, kontuan hartzen badugu, HEZak ezarritako hondakinen kudeaketa-hierarkia aplikatzeko, hondakin-korronte guztietan aldi berean eta modu osagarrian jardutea ahalbidetuko duen ikuspegi koordinatua behar dela.

Halaber, eta hondakinen sorreratik eta kudeaketatik ondorioztatutako ingurumen-inpaktuari dagokionez, kontuan izan behar da horiek lurralde- zein ingurumen-inpaktu garrantzitsua dutela, zaborte gietan uzteko behararengatik, edota euren kudeaketarako azpiegiturak eraikitze behararengatik (balorizazioa, etab.); beraz, inpaktu horiek minimizatzea ahalbidetuko duen plangintza arrazionala eta baterakoa gauzatu behar da.

9.2 AUKERAK, PLANAREN IRISMENARI DAGOKIONEZ

2020ko EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak izan behar zuen irismenaren definizioari dagokionez, honako aukera hauek aztertu ziren:

- Existitzen den hondakin-tipologia edo korrante bakoitzeko plana prestatzea, orain arte egin bezala: zero aukerarako aipatu bezala, horrek hondakinen sorreraren eta kudeaketaren ikuspegi integrala saihestuko luke, EAEn.
- Existitzen diren hondakin-mota guztiak eta EAeko hiru lurralde historikoak barne hartuko dituen plan integralaren prestakuntza: bigarren aukera horren hautaketak aukera-izaera izan zuen; izan ere, ordura arteko indarreko planen iraungipenak (hondakin-tipologiaren arabera) euskal lurralde osorako plangintza integrala lantzeko aukera aurkezten zuela pentsatu zuten, hondakinen arloko politika herrialde-estrategia gisa ezarrita.

Horrela, hondakinen sorrera eta kudeaketa bezalako baterako ingurumen arazoarekiko gerturatze globala ahalbidetu zen, ondorioztatutako inpaktuak lantzeko eta konpontzeko oinarriak ezarrita.

Aldi berean, plan integralaren prestakuntzaren barnean, bi aukera posible baloratu ziren:

- Banan-banan, prebentzio-plana eta kudeaketa-plana prestatzea: estatu-mailan proposatu bezala.
- Hondakinen prebentzioa eta kudeaketa bateratuko dituen dokumentu bakarraren prestakuntza.

Bigarren aukera hautatu zen, HEZarekin lerrokatzeko eta, ondorioz, hondakinen hierarkia-printzipioarekin, kudeaketa eta prebentzioa batera aztertu behar direla erabakita.

Planaren irismenari dagokionez, hautatutako aukeratik ondorioztatutako ingurumen onurak argiak dira: baterako gerturatzea errazten da - eta, ondorioz, irtenbideen definizioa eta proposamena - gure Autonomia Erkidegoak egun duen ingurumen-arazo nagusietako baterako: hondakinen sorrera eta kudeaketa. Horrela, tratamendu koherentea eta homogoneoa faboratzen da hiru lurralde historikoetan, herrialde-estrategia gisa proposatuta eta HEZaren irizpideekin eta helburuekin lerrokatuta.

9.3 AUKERAK HELBURUEN HAUTAKETAN

Helburuen hautaketako aukerak bitan laburbildu daitezke:

- Hondakinen arloan indarrean dagoen legeria betetzera doitutako helburuen definizioa. HEZak, HLKk zein hondakinen korrante espezifikotarako indarreko araudiak hondakinen arloko helburu kuantitatibo zehatzak markatzen dituzte: murrizketa- eta balorizazio-ehunekoak, etab. Beste batzuetan, helburua ez da kuantitatiboa; aldiz, joera bat adierazten du

(adibidez: HLKLk jasotako «2015 aurretik, paperaren, beiraren, plastikoaren eta metalaren bilketa bereiztua»).

- Indarreko araudiak ezarritakoak baino helburu handizaleagoen definizioa

2020ko EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren helburuak, gauzatutako jardueretatik abiatuta, korrontez korronte gauzatutako azken urteetako bilakaeraren analisi zehatzetik ondorioztatzen dira; horietako batzuen emaitzak egun indarrean dauden baldintzen eta baliabideekin eta jarduerekin izan litezken hobekuntza-potentzialaren haraindian doaz. Analisi horren emaitza gisa, Plana eratzen duten hondakin-korronte askotan, lege-eskakizun sinpleen haraindian doaz. Beraz:

- Eskatutakoa baino zorrotzagoa den sorreraren eta kudeaketaren kontrolean aurrera egiten da, ondoriozko eragin positiboa lortuta, ingurumen-inpaktuari dagokionez.
- Hondakin-korronte bakoitzaren tratamendu egokia faboratzen da, gure Autonomia Erkidegoaren egungo egoeraren arabera, neurriak existitzen den errealitatera egokituta, eskualde mailako analisiari esker.

9.4 AUKERAKN JARDUEREN HAUTAKETAN

Helburu estrategikoa / helburu espezifiko elkartua	1. Aukera	2. Aukera	3. Aukera	4. Aukera	Hautatutako aukera	Hautatutako aukeraren justifikazioa, ingurumen-irizpideen arabera
1. PROGRAMA: Sortutako hondakinen kopuru totala % 10 prebenitzea 2020rako, 2010. urteari dagokionez; baita hondakinen arriskugarritasuna prebenitzea ere	Diseinu-fasean: Jatorrizko produktuen ekodiseinua eta life cycle thinking prozedura sustatzea, honako helburuetarako: Honakoaren balio-bizitza luzatzea eta horren sorrera minimizatzea	Ekoizpen-fasean: Ekoizpenean TEOen erabilera eta hondakinen minimizazio planak sustatzea	Erabilera-fasean: Prebentzioaren inguruko sentsibilizazio-kanpainak (ez botatzea, hobe kontsumitzea,...)	Bizitza-amaieraren fasean: Berrerabilpena sustatzea	4 aukerak hautatzen dira.	Europako Batzordearen arabera, benetako eraginkortasuna tresnen konbinazioan dago. Aukeren hautaketaren bigarren fasea jarduera horiek lantzeko korronteei lehentasuna ematean datza. Kasu honetan, honako honen arabera egiten dugu: <ul style="list-style-type: none"> - Sorturiko kantitatea - Hondakinaren arriskugarritasuna - Prebentzioaren hobekuntza-potentziala Ikus, Prebentzio programan, 4.4.1. atala, lehentasuna emandako korronteak
2. PROGRAMA: Hondakinen gaikako bilketa selektiboa gutxienez % 75 izatea 2020an, eta bilketa-sistemak ezartzea, arazo bereziak eragiten dituzten korronteentzat	EAEko gaikako bilketa globalak ezartzea (lege-betekizunak dituzten korronteak), zein korronte problematikoetarako bilketa-sistema berriak ezarri behar diren adieraztea eta «HHKorekin lantzea, EAEko HHen Gidalerroetan jarduerak batera zehazteko, eta kalteak lurralde-plangintzetan lantzea».	Gaikako bilketa metodo edo tresna zehatzak ezartzea	Gaikako bilketa instalazioak sustatzea	Industria-korronteen gaikako bilketa jarduerak sustatzea	1. eta 4. aukerak hautatzen dira	1. eta 4. aukerak hautatzen dira, EAEko eskumenen banaketa dela eta (ikus aipatutako eskumenen banaketa deskribatzen duten 8. eranskina eta 1.1 atala Planaren justifikazioa). Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Organo bezala, gure misioa legeria betetzeko baliabideak bermatzearekin edo jartzearekin du zerikusia (HEZ, 22/2011 legea, beste ingurumen-legeria batzuk, eta osasunerako eta ingurumenerako arriskuak saihestea) eta, horretarako, honako hau egin behar dugu: <ul style="list-style-type: none"> ▪ EAE mailan planifikatzea ▪ Industria Hondakinen arloan, zuzenean jardutea ▪ Kasu bakoitzean, erakunde eskudunekin lan egitea, Hiri Hondakinen arloko aipatutako plangintzaren betearazpenean Jarduera-modu horiek hautatu ondoren, proposatutako aukeren hautaketako bigarren faseak jardun beharreko lehentasunezko korronteekin du zerikusia. Kasu honetan, berriro, honako honen arabera eman da lehentasuna: <ul style="list-style-type: none"> - Gaikako bilketaren edo gaikako bilketaren tasa zehatzak behar dituzten ondoko estadioen gaineko lege-betekizuna duten korronteak. - Sorturiko kantitatea - Hondakinaren arriskugarritasuna - Gaikako Bilketa hobekuntza-potentziala (bilketa-sistema ez dutenei lehentasuna emanda) Ikus, Gaikako Bilketa programan, 4.4.2. atala,

						lehentasuna emandako korronteak
3. PROGRAMA: Hondakinen % 60 berrerabilpen erako, birziklapenerako eta balorizazioak o prestatzea 2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanez	Balorizazio-bide berrien inguruan ikertzea, egungo bideak nahikoak ez direnean	Hondakinetatik datozen materialetarako edo produktueterako merkatu-irteerak sustatzea (eskakizuna normalizatzea eta sustatzea)	Hondakinak tratatzeko eta balioztatzeako azpiegiturak sustatzea	Azpiegiturak non behar diren identifikatzea eta aipatutako beharra Planean islatzea, merkatua erregulatu dadin. Egoeraren, tamainaren edo bestelako ezaugarrien inguruan eskatuko liratekeen ingurumen-irizpideak ezartzea, horiek baimentzeko	Hautatutako aukerak 1., 3. eta 4. dira, isuriaren gaineko zergarekin eta zenbait korronteren zabortegeko sarreraren ikuskapenarekin konbinatuta.	<p>Programa honetarako, landu beharreko korronteen lehentasunak ere ezarri dira, honako irizpideen arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sorrera - Balorizazioa hobetzeko potentziala <p>Ikus, Gaikako Bilketaren programan, 4.4.3. atala, lehentasuna emandako korronteak. Korronte bakoitzaren jokabidea eta egoera ezberdinak direnez, bakoitzerako aplikatu beharreko neurria horren menpe dago. Horrela, azpiegituren defizita detektatzen ez den korronteak daude; hondakin horren balorizazio-irtenbide berriak normalizatu beharko lirateke, arriskuen falta bermatuta, ingurumen-ikuspegitik. Horretarako, funtsezko jarduera otsailaren 18ko 34/2003 Dekretua, Altzairua Arku Elektrikoko Labeen Fabrikatzeak sorrarazten duen Zepa Balioztatzea eta Gerora Erabiltzea Euskal Autonomia Erkidegoan arautzen duena aldatzea izango litzateke. EEHen kasuan, merkatuko irteerak jadanik araututa daude eta egin beharko litzatekeena sektore publikoan eta pribatuan EEHen erabilpena lanetan sustatzea da, arlo horretako Erosketa Publiko Berdearen garapenaren eta hedapenaren bidez.</p> <p>3. aukera baztertu egin da, ekoizlearen erantzukizun-printzipioaren eta programan landutako korronteen izaeraren arabera, ez delako uste Administrazio Publikoak aipatutako azpiegiturak gauzatu behar dituenik; aldiz, horretarako baldintzak ezarri behar ditu.</p>
3. PROGRAMA.- Azpiegituraren zerikusia duen helburu espezifikoa: Merkatu berrien garapena eta bigarren mailako materialen erabilera eraginkorra erraztea...	Tokiko tratamenduen bideragarritasunari buruzko ikerketak sustatzea	Hondatutako/kut satutako lurzoruen berreskurapenaren bideragarritasun-ikerketak (transferentzia-zentroa eta lurzoruen bankua)	Mota horretako azpiegituren ingurumen-baimenerako irizpideen ezarpena	3 aukerak isuriaren gaineko zergarekin konbinatuta	<p>2008an, aipatutako azpiegituren bideragarritasunaren analisia egin zen, baina egoera sozioekonomikoa nabarmen aldatu da, eta beharrezkoa da aipatutako ikerketa eguneratzea. Nolanahi ere, isuriaren prezioen lehia desleialak hondakinak tokialdatzea eta mota horretako zentroan tratatzea lehiakorra ez izatea eragiten du; ondorioz, azkenean, ez zen aipatutako azpiegitura hautatu. Alde horretatik, tratamenduzentroaren aurrean, onuragarria zen tokiko tratamenduteknologiak erabiltzea.</p> <p>Une honetan eta isuriaren gaineko zergaren aldeko apustuarekin, bi azpiegitura-moten bideragarritasun-analisia eguneratu nahi da, 2 tratamendu-bide posible horiek irekitzeko. Ikerketa horien emaitzaren eta edukiaren arabera, eta bideragarritasunaren kasuan, aipatutako azpiegiturak sustatzeko modua zehaztuko da. Nolanahi ere, Planak mota horretako azpiegituren ingurumen-baimenerako irizpideak aurreikusten ditu. Ikus Planaren 4.5.2. atala Kokapen-irizpideak eta gaitasunak</p>	
4. PROGRAMA: Hondakinen eliminazioa	Isuriaren gaineko zerga	Zabortege berrien baimena mugatzea,	Zabortegeen AAletan, balorizazio-	4 aukerak	Horrela, bide posible guztien bidez, isuriaren sustagarria kentzen saiatzen da, balorizazioaren eta birziklapenaren alde. Beraz, isuriaren prezioetan esku	

<p>optimizatzea, horiek minimizatzen diren tresnak garatuta, hori gure lurraldetik kanpo egitea saihestuta, EAEn baldintza baliokideetan egin daitekeenean eta existitzen diren zabortegeien inpaktua minimizatuta.</p>		<p>hondakinen hierarkiaren aurreko etapetan irtenbideak ez dituzten hondakinetarako soilik baimentzearen ildoan (zabortegeiak baimentzeko irizpideak)</p>	<p>aukerak dituzten hondakinen onarpena mugatzea, eta onarpen hori kontrolatzea</p>			<p>hartuko da, balorizazioaren eta birziklapenaren aurrean, hori lehiakorra ez izatea saihesteko.</p> <p>Halaber, zabortege berrien baimentzean esku hartuko da, murriztu edo desagertu egingo den isuria duten hondakinetarako (isuri behar denerako, baina ez beste hondakin batzuetarako, zabortegeien existentzia bermatzen duten irizpideak ezarrita). Ikus Planaren 4.5.2. atala. Kokapen-irizpideak eta gaitasunak</p> <p>Halaber, onartzen diren hondakinetan esku hartuko da; izan ere, existitzen diren zabortegeiek euren espazioa optimizatu beharko dute, kudeaketa-aukerarik ez duten korranteetarako erabiltzeko.</p> <p>Neurri-konbinazio horrekin, ez da soilik balorizazioa sustatzen, isuriaren aurrean; aldiz, beharrezkoak direnak baino zabortege gehiago eraikitzen ondorioztatutako epe luzerako pasiboaren sorrera ere saihesten da.</p>
---	--	---	---	--	--	---

Jendaurrean jarritako dokumentu bat

9.5 AUKERAK ZEHAZTEKO ETA HAUTAATZEKO ERABILITAKO IRIZPIDE TEKNIKOAK

Aukeren analisia eta hautaketa gidatu duen erabaki-prozesuan, bideragarritasun teknikoko hainbat irizpide erabili dira, Planaren zirriborroaren idazketan, erabaki ezberdinak hartzeko. Jarraian, erabaki esanguratsuenak gidatu dituzten irizpideak nabarmentzen dira; horiek 2020ko EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren egituraren eta edukien eraketa eragin dute:

9.5.1 HIERARKIA-PRINTZPIOAREKIKO ARRETA

5 jarduera-programetan aldi berean jardutea aurreikusten bada ere, Planaren aplikazioaldian hondakinen prebentzioan eta kudeaketa egokian aurrera egiteko eta azaldutako helburuak lortzeko modu bakar gisa, ekintzen definizioan, hierarkia-printzipioa izan da kontuan uneoro eta bereziki. Horrela, lehenetsua ematen zaie azaldutako bost programen ekintzei, bata bestearen ondoren, 1etik 5era, prebentzioari garrantzi handiagoa emanda.

9.5.2 LEHENESPEN IRIZPIDEAK

Jarduera-programa bakoitzaren barnean (6.4 atalaren jardueren aukeren taulan aipatzen da, dagoeneko, aspektu hori), lehenetsua ematen zaie jardueri, honako irizpide hauen arabera:

- f) **Lege-betekizunen existentzia:** Lehenik eta behin, lehenetsua ematen zaie gauzatu beharreko lege-betekizun zehatza duten korronteei.
- g) **Tamaina:** lehenetsua ematen zaie kopuru handienak sortzen dituzten hondakinen korronteei; izan ere, horiek egingo diote ekarpen handiena Planari.
- h) **Arriskugarritasuna:** lehenetsua ematen zaie hondakin arriskutsuenen hondakinei, ingurumen- inpaktuko potentzial handiena izateagatik.
- i) **Landutako programarako hobekuntza-potentziala** (prebentzioa, birziklapena, balorizazioa): aurreko bi irizpideen arabera hautatutako ekintzetatik, landutako helbururako hobekuntza-potentzial handia duten horiek bakarrik mantenduko dira.
- j) **Merkatuko aukerak sortzeko gaitasuna:** azken buruan, lehenetsua ematen zaie, euren ebazpenean, merkatuko aukerak sortzen lagunduko duten korronteei.

Irizpide horiek garrantzi erlatiboa dute programa bakoitzean. Horrela, prebentzio-programan, adibidez, aplikatutako irizpideak tamaina, arriskugarritasuna eta hobekuntza-potentziala dira; gaikako bilketan, berriz, guztiak, etab.

Horrela, jarduera-programa bakoitzean, honako korronteei edo problematikei ematen zaie lehenetsua:

a. Prebentzio-programa:

- **Biohondakinak**
- **Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak (EEH)**
- **Erabilera bakarreko plastikozko edukiontziak eta poltsak**
- **Etxetresnak eta bestelako GEEH**

- Toxikotasun handiko etxeko hondakin arriskutsuak (pilak, bateriak, fluoreszenteak, produktu kimikoak)
- Toxikotasun handiko kontsumo handiko industria-produktuak (disolbatzaileak, margoak, taladrinak...)
- Erabiltzen ez diren ibilgailuak (EEI) eta erabiltzen ez diren pneumatikoak (EEP)
- Hondeatutako lurzoruak eta bestelako materialak

2) Gaikako Bilketa eta Bereizketa Programa:

- Biohondakinak
- Papera, zura, edukiontziak, metalak, beira
- Pilak/bateriak
- GEEH
- Etxeko hondakin arriskutsuak
- Nekazaritza- eta abeltzaintza-instalazioetako hondakin fitosanitarioak eta zoosanitarioak
- Egiturazko fibrozementua
- Hg amalgamak eta urak, termometroak eta laborategiko produktuen Hg
- Industria-nahasketak eta EEHak

3) Berrerabiltzeko Prestakuntza, Birziklapen eta Balorizazio Programa

- Biohondakinak
- Papera, zura, plastikoa, beira, metalak
- EEH
- GEEH
- Zepa beltzak
- Pasta eta paper lohiak
- Moldaketa-hondar berdeak
- Hiriko HUA lohiak
- Hondeatutako lurzoruak (hondatuak eta ez hondatuak)
- Autogestionatu daitezkeen hondakinak
- Erabiltzen ez diren itsasontziak

4) Eliminazioa Optimizatzekeo Programa

- Berrerabiltzeko Prestakuntza, Birziklapen eta Balorizazio Programan lehenasuna emandako korrante guztiak
- Kutsatutako lurzoruak eta bestelako materialak
- Beste HA batzuk (desugerketa-azidoak...)

- 5) Administrazioaren eredugarritasunaren eta gobernu egokiaren programa: barne-jarduerak dira eta, horietan, lehenetasun berdina ematen zaio aurreikusitako parte-hartze guztien gauzaperari.

9.5.2 HONDAKINAK TRATATZEKO EDO KUDEATZEKO INSTALAZIO BERRIAK: KOKAPENERAKO, GARAPEN TEKNIKORAKO ETA ALDI BATERAKO GARAPENERAKO IRIZPIDEAK

Hondakinen kudeaketarako instalazio berriak kokatzeko irizpideak dokumentu honen 2.5.3. atalean jasotzen dira. Azpiegitura-mota hori ingurumenaren aldetik sentiberak diren eremuetan kokatzea saihesteko eta, hondakinen tratamenduaren edo kudeaketaren inguruan sor litezkeen azpiegitura berrien garapena Plan honen printzipioekin, filosofiarekin eta helburu estrategikoekin lerrokatzeko baldintzatzaileak dira.

Plan honen pena sor daitezkeen azpiegiturak hurrengo kategorietan sailkatzen ditugu:

AZPIEGITURA PROBABLEENAK
1. Hondakinak sor ditzaketen instalazio berriak
2. Hondakinak aldi baterako biltegitratzeko zentroak
3. Hondakinak tratatzeko instalazioak
4. Zaborteziak

9.6 KONGRUENTZIAREN ETA PROPORZIONALTASUNAREN JUSTIFIKAZIOA

2020ko EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planarekin erlacionatutako erreferentziatzko ingurumen-helburuak honako hauek dira:

- *Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategia: Helburuetako bat 2016rako, zaborteziaren amaitzen duten HHak % 75era arte gutxitzea, 2012rako % 45era arte gutxitzea eta 2020rako sortutako kopuruaren % 30era arte gutxitzea da.*


2002an idatzia, GIEIk azken urteetan hein handian jadanik aurrera egindako parametroak ezartzen ditu. Lehenik eta behin, 0 aukerak (Plana ez idaztea edo ez aplikatzea eta, ondorioz, koordinatutako neurri aktiboak ez hartzea) ez du hori lortzen laguntzen: neurri isolatuak har daitezke balore-helburu horiek lortzeko; nolana ere, Plangintza estrategikoan ez sartzeak EAEko gainontzeko politikekiko koherentzia zailtzen du, bere ebaluazio egokia saihesteaz gain.

2020ko EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren murrizketa-helburua 2020an sortutako hondakinen kopurua % 10 murriztea da, 2010eko kopuruari dagokionez. Kontuan izan behar da, egindako diagnostikoaren arabera, aldi honetan hazkundera espero dela hondakinen sorrera, 2007an sortutako gehienekora iritsi arte; beraz, murrizketa gorantz egitea aurreikusten den oinarritzko mailan aplikatzen da. Horrela, ez da espero den goranzko joera geldiaraztea soilik, aldiz, alderantzikatu egin behar da, sortutako hondakin-kopuruaren murrizketa eraginkorra lortzeko.

HEZak ezarritako hierarkia-printzipioaren aplikazioak hondakinen kudeaketaren azkeneko postuan jartzen du hondakinak zabortegian uztea. Beraz, hierarkia-printzipio horretan oinarritutako Planaren idazketak honako hauek bermatzen ditu: prebentzio-aukeren lehenespena (1), berrerabiltzeko prestakuntza (2), birziklapena (3) eta gainontzeko balorizazioak (4), zabortegian eliminatu aurretik eta, gainera, azken hori mugatzen du tresna jakin batzuen bidez (isuriaren gaineko zerga; 49/2009 Dekretuan sartzearen bidez, korrante jakin batzuen isuriaren mugapen zehatza, ekoizleen zein zabortegien ingurumen-baimenetan aipatutako korronteak isurtzeko baimena ukatzea, etab.).

Planaren idazketa berak eta bere ekintzen egiturak lehenespen hori faboratzen dute; horrek deskribatutako helburuak lortzea eragingo du. 2020ko EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren lehen bertsioan jasotakoaren arabera, hondakinen arloko ekintzen plangintza aurreikusten duen agertokiak (0 aukera) sorrera-balore hauek ekarriko lituzke:


Evolución de la generación de residuos sin adoptar el Plan
2014-2020



Ikus bezala, 2020an, hondakinen frakzio ezberdinen sorrerak 6.080.966 tona ekar ditzake, eta 2007an lortutako balorea baino balore txikiagoa izango litzateke; hori inflexio-puntua izan zen, krisia hasi aurreko hondakinen sorrerari dagokionez.

Nolanahi ere, esan bezala, Planaren helburua % 10eko murrizketa da, 2010i dagokionez; hau da, 4.931.162 tona sortuko lirateke.

Evolución de la generación de residuos al adoptar el Plan
2014-2020



3. taula. EAEko 2020. urteko hondakinen sorrerako agertokiaren laburpena

Mota	Sorrera hemen: 2007	2020an sortutako hondakinen aurreikuspena	
		Plana aplikatu gabe	Plana aplikatuta
HEA	3.483.715	3.090.130	2.491.106
HA	456.853	405.180	318.277
RU	1.224.514	1.235.237	961.723
EEH	1.605.708	1.350.419	1.160.056

- *2011-2014 aldirako Ingurumen Esparru Programa (III. IEP): 3. helburu estrategikoa: Baliabideak eraginkortasunez erabiltzea eta kontsumo arduratsua sustatzea. Helburua: Industriako hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen balioztapen-tasa % 5 handitzea. Jardutako ildoak: Lehengaiak azpiproduktuengatik eta hondakinengatik modu seguruan ordezkatzeko sustatzea, hondakinen eta azpiproduktuen izaeraren eta hondakin-izaeraren amaiera-kontzeptuaren inguruko irizpide argiak zehaztuko dituen estandarren eta araudi teknikoaren garapenaren bidez, erabilera ezberdinetarako // EAEn, kudeaketa-defizita diagnostikatutako hondakinen kudeaketako azpiegituren sorrera laguntzea, merkatu askeko, autosufizientziako eta gertutasuneko printzipioak errespetatuta // EAEko hiri-hondakinen gidalerro berrietan, biohondakinen gaikako bilketaren sustapena eta, kalitate-estandarren bidez, erabilera-bermea duen konpostaren fabrikazioa ezartzea // Nekazaritzako, basozaintzako eta abeltzaintzako azpiproduktuen kudeaketa bultzatzen duten proiektuak sustatzea; nekazaritza-sistemaren barneko materialen zikloaren itxiera // I+G+b proiektuak sustatzea, balorizazio zaileko hondakinen aukerak garatzeko; hala nola, ekoizpen-prozesuaren aldaketak, lehengaien ordezkapena, zikloen itxiera, balorizazio-bide berriak ikertzea, bioteknologiaren edo material estrategikoen birziklapenaren aukerak aztertzea. Erakustaldi teknologikoko proiektuak garatzea, lankidetzara publiko-pribatua sustatuta.*

Berriz ere, 0 aukerak adierazitako helburuen lorpenean aurrera egitea saihestuko luke, alde horretatik jarduerak koordinatuko eta zuzenduko dituen plangintza espezifikoak ez ahalbidetuta. 2020ko EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planari dagokionez, honako hau aipatu behar da:

- Hondakinen kudeaketa-hierarkiaren aplikazioa hondakinen arloko edozer politika publikoaren bizkarrezurra izan behar da eta, Plan honek aplikatu bezala, hondakinen balorizazioa hirugarren eta laugarren postuan utzita.
- Hondakin Planak proposatutako jarduerak-ildoak bat datoz III. IEPn identifikatutakoekin. Azpiegiturak sortzeko laguntzari dagokionez, Planak ez du existitzen direnetan bere esparruan instalazio berrien proposamena arrazoituko duen defizitak identifikatu; hala ere, jarduerak-programa ezberdinen aplikazioaren emaitzen arabera, izan litezkeen eskasiak detektatuko dituen analisi berriari ekin behar zaio (Planaren aplikaziotik 3 eta 6 urtera). Horregatik, eta aipatutako instalazioen ingurumen- eta lurralde-inplikazioak direla eta, Planak irizpide jakin batzuk ezartzen ditu horien kokapenerako eta beste funtsezko aspektu batzuk horiek

baimentzeko, aipatutako azpiegituren osasunaren zein ingurumenaren gainera litekeen kaltea minimizatu dadin.

Jendaurrean jarritako dokumentua

10. AURREIKUSITAKO INGURUMEN INTEGRAZIO NEURRIAK

«Ingurumenaren gaineko eragin esanguratsu probablei» buruzko hurrengo atalean aipatu bezala, azpiegituren proposamen zehatza landu gabe, esparru globala ezartzen duen Hondakin Planaren plangintza-eskala dela eta, ezin da izan litezkeen ingurumen-eraginen analisia gauzatu eta, ondorioz, ezta ingurumen-integrazioko neurrien definizioa ere.

Beraz, 2020ko EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plan honen garapen gisa sortutako proiektuen eta planen ingurumen-prozeduren esparruan gauzatuko da inpaktuen halabeharrezko analisia eta kasu bakoitzean hartu beharreko neurrien definizioa.

Jendaurrean jarritako dokumentua

I. ERANSKINA
LABURPEN EZ TEKNIKOA

Jendaurrean jarritako dokumentua

Ingurumenaren babes orokorrari buruzko 3/1998 legearen arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio, ezarritako eskumen-eremuan, ingurumenaren arloko araudia prestatzea eta onartzea, bai eta legeria garatzea zein ingurumenaren eta ekologiaren inguruko Estatuaren oinarrizko legeria betearaztea ere. Era berean, bere eskumenen artean daude Europar Batasuneko araudien aplikazio zuzenerako beharrezko neurriak hartzea eta zuzentzauek eta Erkidegoko gainontzeko araudian ezarritako obligazioak betearaztea.

EAEn, orain arte, hondakin-politikak jarraian adierazitako planen arabera zuzendu dira:

- EAEko hondakin ez arriskutsuak prebenitzeko eta kudeatzeko 2009-2012 aldirako plana
- EAEko hondakin ez arriskutsuak prebenitzeko eta kudeatzeko 2008-2011 aldirako plana
- Hiri-hondakinak planifikatzeko eta kudeatzeko ildoak EAEn 2008
- 2016ra arteko indarraldia duten Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundien hiri-hondakinak prebenitzeko edota kudeatzeko lurralde-planak.

Halaber, zenbait zuzentzauek baliogabetzen dituen hondakinei buruzko 2008ko azaroaren 19ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/CE Zuzentzauek (Hondakinen Esparru Zuzentzauek (HEZ) bezala ere ezaguna) hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko planak ezartzeko betekizuna ezartzen du; horiek euren sorrerari eta kudeaketari lotutako ingurumen inpaktuak kontuan hartzea sartu behar dute euren garapen- edo azterketa-prozesuan.

Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak ezartzen du Autonomia Erkidegoei dagokiela hondakinak prebenitzeko programak eta hondakinak kudeatzeko autonomia-planak prestatzea.

Orain arte, EAEn indarrean izan diren hondakinen planek hondakin arriskutsuen, ez arriskutsuen eta hirikoen prebentzioan, kudeaketan eta tratamenduan aurrerapausoak ematea ahalbidetu dute, EAEn. Plangintza horien indarraldia amaitu izanaren eta Hondakinen Zuzentzauek Markoa onartu eta gero hondakinen arloan marko berri bat ezarri izanaren ondorioz, baina, uneotan beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinen plangintzarako instrumentu berri bat garatzea. Instrumentu hori, hain zuzen ere, EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020 da.

Ingurumen eko Txosten hau planen ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean aurreikusitakoaren arabera idatzi da.

Garrantzitsua da nabarmentzea 2020ko EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak ingurumen-eduki argia duela; izan ere, horren helburu nagusia hondakinen sorrera minimizatzea eta euren kudeaketa optimizatzea da, globaleko politika aurreratuagoetarantz zuzenduta. Alde horretatik, horren ingurumen-ondorioei dagokienez, Planaren diagnostikoa eta ebaluazioa Planaren idazketan bertan daude inplizituak; izan ere, hondakinek gure Autonomia Erkidegoko maila guztietan sortzen duten inpaktu globala minimizatu nahi da.

Bere izaera planifikatzailea dela eta, 2020ko EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak ez ditu lurralde-eragin zuzena duten ekintzak identifikatzen;

aldiz, jarduera-mota ezberdinen aplikazioaren bidez, bere helburuak, HEZarenak eta HLKLrenak betetzeko bete beharreko parametroak eta helburuak ezartzen ditu.

Nolanahi ere, eta aurrekoa alde batera utzita, kontuan izan behar da Hondakin Planak aipatutako lurralde-eragina izan dezaketen ekintzak betearazteko esparrua ezartzen duela; izan ere, ezarritako helburuen arabera, hondakinak kudeatzeko beharrezko azpiegiturak zehaztu beharko dira.

Lurralde-eragin horren zeharkako izaerak ingurumen-analisia Hondakin Planetik landu ahal izatea zailtzen du; izan ere, esparru globala ezartzen da, baina oraindik ez dago zehazki ebaluatu daitekeen azpiegituren (kopurua, kokapena...) proposamen zehatzik, izan litezkeen ingurumen-inpaktuei dagokienez. Egoera horretan, funtsezkoa da 2020ko EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plan horren garapen gisa sortutako planek eta proiektuek «Azpiegitura berriak baimentzeko irizpideei» erantzuna ematea (Ikus 2.5.3. atala), aukeren hautaketan zein kasu bakoitzari dagokion ingurumen-ebaluazioan, Planaren oinarri diren - printzipioak sartzen direla ziurtatu dadin.

2020ko EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plan horren garapen gisa sortutako zenbait proiekturen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko da, ingurumen-ebaluazioko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen eta Euskadiko Ingurumen Babeseko 3/98 Lege Orokorren arabera. Halaber, azpiegitura berriak hartzeko lurralde- edo hirigintza-plangintza egokitzeko beharrak ekimen horien ingurumen-ebaluazio estrategikoa ekarriko du (EAE), planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen dute 21/2013 Legearen eta 21172012 Dekretuaren arabera.

Jendaurrean jarritako dokumentuak

II. ERANSKINA
2020KO HONDAKIN PLANAREN BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOARI
BURUZKO TXOSTENA

Jendaurrean jarritako dokumentua

«2020ko Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak» zazpi urteko indarraldia du, eta horren betearazpena 2014-2016 eta 2017-2019 aldiatarako bi Jarduera Planen bidez antolatzen da, azken urtea hurrengoaren ebaluaziorako eta plangintzarako gordeta, dagokion kasuan.

Aurreikusitako epemugak bost urte gainditzen dituen heinean, Planaren aurrekontu-beharren konfiguraziorako faktore erabakitzaileetan ezjakintasun-maila esanguratsua dagoela esan daiteke, eta hori handitu egiten da indarraldiko azken urteetarako.

Horregatik, eta ezarritako helburuen lorpenaren premisatik abiatuta, jasotako jarduerak malgutasun-maila jakin bat aurkeztu behar dute, besteak beste, etorkizuneko ekonomia- eta ingurumen-bilakaerara egokitzeko.

Hurrengo urteetako bilakaera makroekonomikoaren inguruan ezjakintasuna egonda ere, eta Autonomia, Foru zein tokiko Administrazioaren aurrekontu-herstura egoera probablearen arabera, «2020rako Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planean» jasotako Jarduera Ildoak betetzeko aurrekontu-beharren kalkulua egin da, Eusko Jaurlaritzako teknikarien irizpide adituaren bidez (Ingurumen Sailburuordetza eta Ihobe).

Plana garatzen duten Programa bakoitzerako urteko banakapena hurrengo taulan aurkezten da:

X. taula: 2020rako Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana garatzeko aurreikusitako aurrekontuaren banakapena

Programa bakoitzeko aurrekontua (€)	Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren indarraldia							Guztira	SARRER EN GUZTIZ KOA, EUROTAN
	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020		
Prebentzioa	260.000	287.000	302.000	241.000	206.000	201.000	0	1.497.000	% 43,03
Gaikako Bilketa eta Bereizketa Programa	40.500	71.500	26.000	10.000	10.000	10.000	0	168.000	% 4,83
Berrerabiltzeko Prestakuntza, Birziklapen eta Balorizazio Programa	205.000	198.000	169.000	165.000	103.000	78.000	0	918.000	% 26,39
Eliminazio Optimizatze ko Programa	15.000	16.000	16.000	25.000	0	0	0	72.000	% 2,07
Administrazioaren eredugarritasunaren eta gobernu egokiaren programa	96.000	94.000	128.000	164.000	146.000	126.000	70.000	824.000	% 23,68
Guztira	616.500	666.500	641.000	605.000	465.000	415.000	70.000	3.479.000	% 100,00
SARREREN GUZTIZKOA, EUROTAN	% 17,72	% 19,16	% 18,42	% 17,39	% 13,37	% 11,93	% 2,01	% 100,00	

Programa bakoitzeko aurrekontua (€)	Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren indarraldia								Guztira	SARREREN GUZTIZ KOA, EUROTA N	
	2014	2015	2016		2017	2018	2019				2020
Kudeaketa ¹⁷	448.000	448.000	448.000		448.000	448.000	448.000		448.000	3.136.000	

Baldintzatzaile horiekin, Plana behar bezala betearazteko kalkulaturako aurrekontu eragilea 3.479.000 € dira, Planaren indarraldiaren zazpi urteen artean banatuta. Nolanahi ere, 2016an, gauzatu beharreko jarduerak eta, ondorioz, data horretara eguneratutako lotutako zenbateko ekonomikoa birdoitzea ahalbidetuko duen Planaren azterketa egitea aurreikusten da.

¹⁷ Ingurumen Sailburuordetzako eta Ihobe Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren egituraren eta langileen kudeaketa.